

## 3a. eranskina

2021eko bertsioa

# CRS -*CREDITOR REPORTING SYSTEM*

-

## SEKTOREEN ZERRENDA

CAD KOD.	CRS KOD.	DESKRIBAPENA	Azalpenak / Informazio osagarria
110		<b>HEZKUNTZA</b>	
111		<b>Hezkuntza, maila zehaztu gabe</b>	Kategoria honetako kodeak soilik aplikatuko dira hezkuntza-maila ezagutzen ez denean edo zehazten ez denean (adibidez, lehen hezkuntzako irakasleen prestakuntzari 11220 kodea dagokio).
	11110	Hezkuntza-politika eta kudeaketa administratiboa	Hezkuntza-politika, plangintza eta programak; hezkuntza-ministerioei, administrazioari eta kudeaketa-sistemei laguntzea; erakundeen aholkularitza eta erakundeak indartzea; ikastetxeen kudeaketa eta gobernantza ona; ikasketa-planak eta materialak garatzea; zehaztu gabeko hezkuntza-jarduerak.
	11120	Hezkuntzarako eta prestakuntzarako zerbitzu eta instalazioak	Hezkuntzarako eraikinak, ekipamendua, materialak; hezkuntzarako zerbitzu osagarriak (barneko ikasleentzako ostatu-instalazioak, langileentzako etxebizitzak); hizkuntzei buruzko prestakuntza; mahai-inguruak, mintegiak, hitzaldiak, etab.
	11130	Irakasleen prestakuntza	Irakasleentzako hezkuntza (hezkuntza-maila zehazten ez denean); etengabeko eta aurretiko prestakuntza; material didaktikoen garapena.
	11182	Hezkuntza-arloko ikerketa	Hezkuntzaren eraginkortasunari, egokitzapenari eta kalitateari buruzko ikerketa eta azterlanak; ebaluazio eta kontrol sistematikoak.
112		<b>Oinarrizko hezkuntza</b>	
	11220	Lehen hezkuntza	Haur eta lehen hezkuntza akademikoa eta ez-akademikoa; oinarrizko eta lehen zikloko irakaskuntza sistematiko oro; eskola-materiala hornitzea.
	11230	Helduen oinarrizko trebakuntza	Irakaskuntza akademikoa eta ez-akademikoa, helduen oinarrizko trebakuntzarako (helduen hezkuntza); alfabetatzea eta oinarrizko kalkulu aritmetikoa ikastea. Ez dira sartzen osasun-hezkuntza (12261) eta gaixotasunen transmisioarekin lotutako jarduerak (123XX).
	12231	Gazteen oinarrizko trebakuntza	Irakaskuntza akademikoa eta ez-akademikoa, gazteen oinarrizko trebakuntzarako.
	12232	Lehen hezkuntza helduentzat	Lehen hezkuntza akademikoa helduentzat

	<b>11240</b>	Lehen haurtzaroko hezkuntza	Eskolaurreko hezkuntza akademikoa eta ez-akademikoa.
	<b>11250</b>	Eskola-elikadura	Eskolan bazkariak edo askariak ematea; elikagaien beste erabilera batzuk, hezkuntzan emaitza onak lortzeko (haurra eskolara erregularitasunez joatearen truke familiei, harrerako familiei edo haurrak zaintzen dituzten beste erakunde batzuei pizgarri ekonomiko gisa eskaintzen zaizkien "eramateko" elikagai-errazioak barne); alfabetatzeko edo lanbide-heziketako programetara joaten diren helduei edo gazteei emandako elikagaiak; hezkuntza-osagai bat duten eskolaurreko jardueretarako elikagaiak. Jarduera horiek lagungarriak izan daitezke haurrek eskola-egunetan gose gutxiago izateko, baldin eta hornitutako elikagaiek/janariak mantenugai osasungarriak badituzte nutrizio-behar espezifikoei aurre egiteko eta haurrengan espero diren nutrizio-emaitzak lortzeko, edo nutrizio konbentzionalaren edo espero denaren oinarria nutrizioarekin lotuta badago.
	<b>12260</b>	<b>Bigarren hezkuntzako lehen zikloa</b>	Irakaskuntza sistematikoa bigarren hezkuntzako lehen zikloan.
<b>113</b>		<b>Bigarren hezkuntzako bigarren zikloa</b>	
	<b>11320</b>	Bigarren hezkuntzako bigarren zikloa	Irakaskuntza sistematikoa bigarren hezkuntzako bigarren zikloan.
	<b>11330</b>	Lanbide-heziketa	Oinarrizko lanbide-heziketa eta bigarren mailako irakaskuntza teknikoa; lanpostuko prestakuntza; ikastunen prestakuntza; lanbide-heziketa ez-akademikoa barnean sartzen da.
<b>114</b>		<b>Bigarren hezkuntzaren ondoko hezkuntza</b>	
	<b>11420</b>	Unibertsitate-hezkuntza	Unibertsitateko, goi-mailako irakaskuntzako eta eskola politeknikoetako lizentziak eta diplomak; bekak.
	<b>11430</b>	Goi-mailako prestakuntza teknikoa eta zuzendaritzakoa	Langileentzako lanbide-heziketako programak eta langileen prestakuntza.

**OHARRA:** berariazko sektore bateko hezkuntza-jarduerak dagozkien sektoreetan sartu behar dira, berariazko hezkuntza-kode batekin (nekazaritzako irakaskuntza, esaterako) edo kode orokor batekin (komunikazioen politika / kudeaketa administratiboa).

<b>120</b>		<b>OSASUNA</b>	
<b>121</b>		<b>Osasuna, orokorra</b>	
	<b>12110</b>	Osasun-politika eta kudeaketa administratiboa	Osasun-politika, plangintza eta programak; osasun-ministerioetarako laguntza; osasun publikoaren administrazioa; erakundeak indartzea eta horien aholkularitza; aseguru medikoko programak; zehaztu gabeko osasun-jarduerak.
	<b>12181</b>	Irakaskuntza/prestakuntza medikoa	Irakaskuntza medikoa eta hirugarren sektoreko zerbitzueterako prestakuntza.
	<b>12182</b>	Ikerketa medikoa	Ikerketa mediko orokorra (oinarrizko osasungintzari buruzko ikerketa izan ezik).
	<b>12191</b>	Zerbitzu medikoak	Laborategiak, klinika espezializatuak eta ospitaleak (ekipamendua eta hornidurak barne), anbulantziak, hortz-haginetako zerbitzuak, osasun mentala, errehabilitazio medikoa, gaixotasun ez-infekziosoen kontrola, medikamentuen eta botiken abusuaren kontrola [estupefazianteen trafikoaren kontrola kanpoan uzten da: (16063)].
<b>122</b>		<b>Oinarrizko osasuna</b>	
	<b>12220</b>	Oinarrizko osasun-laguntza	Oinarrizko eta lehen-mailako osasun-laguntzako programak; zainketa paramedikoetako eta erizaintzako programak; oinarrizko osasun-laguntzarako medikamentu, botika eta txertoen hornidura.
	<b>12230</b>	Oinarrizko osasun-azpiegitura	Eskualdeetako ospitaleak, klinikak eta kontsultategiak, eta horiei dagokien ekipamendu medikoa; ez dira sartzen ospitale eta klinika espezializatuak (12191).
	<b>12240</b>	Oinarrizko nutrizioa	Azido foliko-burdina, kaltzioa, mikromantenugaiak eta osagarri orekatuak (proteinak/energia) haurdun dauden emakumeentzat eta bularra ematen ari direnentzat; A bitamina, zinka eta mikromantenugaien gehigarriak haurrentzat; haurtxoentzako eta haur txiki entzako elikadura-jardunbideak sustatzea, amagandiko edoskitze eskusiboa barne; elikadura—osagarria helburu-taldeentzat; desnutrizio akutuaren kudeaketa ez-premiazkoa eta elikadura gidatuko beste programa batzuk; oinarrizko elikagaiak indartzea, gatzaren iodazioa barne; nutrizio-egoeraren jarraipena; politiken garapena, monitorizazioa eta ebaluazioa, gaitasunen garapena eta ikerketa zientziari laguntzeko eta aipatutako esku-hartzeen implementazioa.  Erabili 11250 kodea eskolako elikadurarako, eta 43072 kodea etxeko elikagaien segurtasunerako.
	<b>12250</b>	Gaixotasun infekziosoen kontrola	Txertaketa; gaixotasun infekziosoen eta parasitarioen prebentzioa eta kontrola, malaria (12262), tuberkulosia (12263), COVID-19a (12264) GIB/HIESa eta sexu-transmisiozko beste gaixotasun batzuk (13040) izan ezik. Barnean sartzen dira gaixotasun diarreiakoak, bektore-agente eramaile batek transmititutako gaixotasunak, gaixotasun biralak, mikosia, helmintiasia, zoonosia, beste bakterio eta birus batzuek eragindako gaixotasunak, pedikulosia, etab.
	<b>12261</b>	Osasun-hezkuntza	Biztanleriaren informazioa, hezkuntza eta prestakuntza, osasun-arloko ezagutza eta ohiturak hobetzeko; osasun publikoko kanpainak eta sensibilizazio-programak. Higiene pertsonalean ohitura hobek sustatzea, saneamendu-instalazioen erabilera eta eskuak xaboiarekin garbitzea barne.
	<b>12262</b>	Malariaren kontrola	Malaria prebenitzea eta kontrolatzea
	<b>12263</b>	Tuberkulosiaren kontrola	Tuberkulosiaren aurreko immunizazioa, prebentzioa eta kontrola.

	<b>12264</b>	COVID-19aren kontrola	COVID-19aren kontrolarekin lotutako jarduera guztiak (adibidez, informazioa, heziketa eta komunikazioa); entseguak; prebentzioa; immunizazioa, tratamendua, zaintza.
	<b>12281</b>	Osasun-langileen prestakuntza	Osasun-langileen prestakuntza oinarrizko osasun-laguntzarako.

<b>123</b>		<b>Gaixotasun ez-kutsakorrek</b>	
	<b>12310</b>	Gaixotasun ez-kutsakorren prebentzioa eta kontrola, oro har	Hurrengo kodeetan banakatu ezin diren gaixotasun ez-kutsakorrek saihesteko eta kontrolatzeko programak.
	<b>12320</b>	Tabako-kontsumoaren kontrola	Taldekako/banakako neurriak eta esku-hartzeak edozein motatako tabako-kontsumoa murrizteko. Barnean sartzen dira OMEren Tabakoa Kontrolatzeko Esparru Hitzarmena implementatzeko jarduerak, eta eskaria murrizteko inpaktu handiko berariazko neurriak, tabakoaren kontrol eraginkorra lortzeko.
	<b>12330</b>	Alkoholaren eta drogen erabilera kaltegarriaren kontrola	Alkoholaren eta droga psikoaktiboen kontsumo kaltegarria prebenitzea eta murriztea; prebentzioko eta tratamenduko estrategia, programa eta esku-hartzeak garatzea, inplementatzea, monitorizatzea eta ebaluatzea; alkoholak eta drogek eragindako osasun-baldintzen identifikazio goiztiarra egitea eta maneiatzea [narkotikoaren kontrola alde batera utzita (16063)].
	<b>12340</b>	Osasun mentalaren eta ongizatearen sustapena	Osasun mentala, ongizatea eta erresilientzia bultzatzen duten programak eta esku-hartzeak sustatzea; suizidioa prebenitzea eta kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen arreta eta laguntza ematea. Tabakoarekiko, alkoholarekiko eta drogekiko mendekotasunaren tratamendua ez da sartzen (12320 eta 12330 kodeetan sartua).
	<b>12350</b>	Gaixotasun ez-kutsakorrek saihesteko eta tratatzeko beste modu batzuk	Taldekako/banakako neurriak, osasungarriak ez diren dietak eta jarduera fisikorik eza murrizteko, eta gaixotasun ez-kutsakorrek etengabe prebenitu, detekzio goiztiarra egin, tratatu eta maneiatzeko gaitasuna indartzeko, honako hauek barne: gaixotasun kardiobaskularren kontrola, gaixotasun kardiobaskularren prebentzioa, detekzioa eta tratamendua (hipertentsioa, hiperlipidemia, kardiopatia iskemikoak, aplopexia, kardiopatia erreumatikoa, sortzetiko kardiopatia, bihotzeko gutxiegitasuna, etab.). Diabetesaren kontrola: diabetes-mota guztiek eragindako konplikazioen prebentzioa, detekzioa, diagnostikoa eta tratamendua. Jarduera fisikorik eza: jarduera fisikoa sustatzea, ingurune eraikiaren bidez (hiri-diseinua, garraioa), kirola, arreta medikoa, eskolak eta programa komunitarioak, eta kanpainak komunikabideetan. Dieta ez-osasungarria: dieta osasungarria sustatzen duten programak eta esku-hartzeak, gatz-, azukre- eta gantz-kontsumoa murriztuz eta fruta- eta barazki-kontsumoa handituz, elikagaiak birformulatzea, etiketan mantenugaiak adieraztea, elikagaien gaineko zergak, osasungarriak ez diren elikagaien merkatuteknia murriztea, elikadurari buruzko hezkuntza eta aholkularitza eta inguruneetan oinarritutako esku-hartzeak (eskolak, lantokiak, herriak, komunitateak). Minbiziaren kontrola: prebentzioa (immunizazioa barne, B hepatitisaren birusa eta giza papilomaren birusa), diagnostiko goiztiarra (patologia barne), detekzioa, tratamendua (adibidez erradioterapia, kimioterapia, kirurgia) eta zainketa aringarriak minbizi-mota guztietarako. Minbiziaren erregistroak ezartzea, mantentzea eta hobetzea ere sartzen da. Arnas-aparatuko gaixotasun kronikoak: arnas-gaixotasun kronikoen prebentzioa, diagnostiko goiztiarra eta tratamendua, asma barne.  Ez dira sartzen: tabakoaren erabilerearen kontrola (12320), alkoholaren eta drogen erabilera kaltegarriaren kontrola (12330), gaixotasun ez-kutsakorren prebentziorako eta kontrolerako ikerketa (12382).

	<b>12382</b>	Gaixotasun ez-kutsakorrak saihesteko eta kontrolatzeko ikerketa	Gaixotasun ez-kutsakorrak, haien arrisku-faktoreak, epidemiologia, baldintzatzaile sozialak eta inpaktu ekonomikoa hobeto ulertzeko ikerketa; nazioz gaindiko ikerketa eta inplementaziorako ikerketa, gaixotasun ez-kutsakorrak saihesteko eta kontrolatzeko estrategia errentagarrien eraginkortasuna hobetzeko; gaixotasun ez-kutsakorren inguruko hilkortasuna, erikortasuna, arrisku-faktoreak eta horiek saihesteko eta kontrolatzeko gaitasun nazionala zaintzea eta jarraipena egitea.
--	--------------	---	--

<b>130</b>		<b>BIZTANLERIARI ETA UGALKETA-OSASUNARI BURUZKO PROGRAMAK / POLITIKAK</b>	
	<b>13010</b>	Biztanleriari buruzko politika eta kudeaketa administratiboa	Politika demografikoak / garapen-politikak; erroldako lanak, jaiotzen eta heriotzen erregistroa; immigrazioaren eta emigrazioaren datuak; analisi/ikerketa demografikoa; ugalketa-osasunaren arloko ikerketa; biztanleriarekin lotutako jarduerak, zehaztu gabeak. (Erabili 15190 kodea migrazioari eta errefuxiatuei buruzko datuetarako).
	<b>13020</b>	Ugalketa-osasunaren arreta	Ugalketa-osasuna sustatzea; jaio aurreko eta jaiotza inguruko zainketak, erditzea barne; antzuntasunaren prebentzioa eta tratamendua; abortuaren ondorioen prebentzioa eta kudeaketa; amen jarduera osasungarriak.
	<b>13030</b>	Familia-plangintza	Familia-plangintzako zerbitzuak, orientazioa barne; informazio-, hezkuntza- eta komunikazio-jarduerak; antisorgailuen banaketa; trebakuntza eta prestakuntza.
	<b>13040</b>	STGen (sexu transmisiozko gaixotasunen) aurkako borroka, GIB/HIESa barne	Sexu-transmisiozko gaixotasunekin eta GIB/HIESaren kontrolarekin lotutako jarduera guztiak, hala nola informazioa, heziketa eta komunikazioa; diagnostiko goiztiarra; prebentzioa; tratamendua; zainketak.
	<b>13081</b>	Langileen prestakuntza, biztanleria eta ugalketa-osasunerako	Osasun-arloko langileen hezkuntza eta prestakuntza, biztanleria eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako.
<b>140</b>		<b>UR-HORNIDURA ETA UR-SANEAMENDUA</b>	
	<b>14010</b>	Ur-baliabideen politika eta kudeaketa administratiboa	Uraren sektoreko politika eta gobernantza, legeria, arauketa, plangintza eta kudeaketa barne, bai eta ur-baliabideen mugaz gaindiko kudeaketa ere; erakundeen gaitasunaren garapena; ur-baliabideen kudeaketa integralari laguntzeko jarduerak (ikus laukia).
	<b>14015</b>	Ur-baliabideen babes (datu-bilketa barne)	Ur-baliabideei buruzko datu kuantitatiboak eta kualitatiboak lortzea eta erabiltzea; ur-baliabideei buruzko ezagutzak sortzea eta trukitzea; azaleko urak (ibaiak, lakuak, etab.), lurpeko urak eta itsas bazterreko urak kontserbatzea eta birgaitzea; ur-baliabideen kutsadura prebenitzea.
	<b>14020</b>	Ur-hornidura eta ur-saneamendua – Tamaina handiko sistemak	14021 eta 14022 zenbakiekin bat datozen osagaiak dituzten eta identifikatu ezin diren programak. Osagaiak ezagunak direnean, banan-banan jakinarazi behar dira, bakoitzaren kodeak erabiliz: ur-hornidura (14021), saneamendua (14022), eta higieena (12261).
	<b>14021</b>	Ur-hornidura – Tamaina handiko sistemak	Edateko ura tratatzeko instalazioak; ur-harguneak; ura biltegitratzeko andelak; ura ponpatzeko estazioak; eroanbideak eta banaketa-sistemak.

	<b>14022</b>	Saneamendua – Tamaina handiko sistemak	Eskala handiko estolderia, hondakin-urak ponpatzeko estazioak barne; etxeke eta industriako hondakin-urak tratatzeko instalazioak.
	<b>14030</b>	Edateko uraren hornidura eta oinarrizko saneamendua – Tamaina txikiko sistemak	14031 eta 14032 zenbakiekin bat datozen osagaiak dituzten eta identifikatu ezin diren programak. Osagaiak ezagunak direnean, banan-banan jakinarazi behar dira, bakoitzaren kodeak erabiliz: ur-hornidura (14031), saneamendua (14032), eta higieua (12261).
	<b>14031</b>	Edateko uraren oinarrizko hornidura	Landa-eremuetako ur-hornidurarako sistemak: eskuzko ponpak, sasoiako bilketak, grabitate bidezko sistemak, euri-ura eta lainoa biltzea, biltegitratze-andelak, banaketa-sistema txikiak, erabiltzeko konexio partekatuekin. Eskuzko ponpak eta auzoko sareak erabiltzen dituzten hiriko sistemak, konexio partekatuek barne.
	<b>14032</b>	Oinarrizko saneamendua	Komun, putzu septiko eta saneamendu-sistema alternatiboak, instalazio horien eraikuntzarako inbertsio pribatua eta komunitarioa sustatzea barne (erabili 12261 kodea higieua pertsonaleko ohiturak hobetzeko sustapen-jardueretarako).
	<b>14040</b>	Arro hidrografikoen garapena	Arro hidrografikoen proiektu integratuak; ur-bideen kontrola; presak, urtegiak [ureztapenerako presak (31140) eta hidroelektrikoak (23065) izan ezik, eta ibaiko garraioarekin lotutako jarduerak (21040) izan ezik].
	<b>14050</b>	Hondakin solidoak ezabatzea / tratatzea	Hiri-hondakin solidoen eta industria-hondakinen tratamendua, hondakin toxiko eta arriskutsuak barne; bilketa, tratamendua eta ezabaketa; zabortegeak; ongarri bihurtzea eta birziklatzea.
	<b>14081</b>	Ur-horniduraren eta -saneamenduaren arloko heziketa eta prestakuntza	Sektoreko lanbideetarako hezkuntza eta prestakuntza, eta zerbitzuen hornitzaileentzako prestakuntza.

**OHARRA: 1/** "Edateko uraren hornidura eta oinarrizko saneamendua – Tamaina txikiko sistemak" eta "Ur-hornidura eta saneamendua - Tamaina handiko sistemak" elkarren artean bereizteko, kontuan hartu behar da zenbat jende zerbitzatu behar den eta zerbitzuen per capita kostua.

- Tamaina handiko sistemek komunitate bati ura eta saneamendua ematen dizkiote, banakako etxeak konektatzen dituen sare baten bidez. Oinarrizko sistemak hainbat etxeren artean partekatu ohi dira.
- Hiriguneetako ur-horniduraren eta -saneamenduaren ondorioz, sarea instalatu behar izaten da oro har. Proiektu horiek sailkatzeko, zerbitzuen per capita kostua hartu behar da kontuan. Tamaina handiko ur-horniduraren eta -saneamenduaren per capita kostua oinarrizko zerbitzuena baino hainbat bider handiagoa da.

**OHARRA: 2/** Ur Baliabideen Kudeaketa Integrala honela definitzen da: "Uraren, luraren eta lotutako baliabideen garapen koordinatua eta kudeaketa integrala sustatzen dituen prozesua, horien ondorioz sortzen den ongizate ekonomiko eta soziala ekitatez eta ekosistemen jasagarritasuna arriskuan jarri gabe maximizatzeko helburua duena".

Ur-baliabideen kudeaketa integralak erabakitze-prozesua nabarmentzen du hainbat sektoreen eta eskalaren bidez. Onartu egiten da uraren kudeaketarako ikuspegi partzialak ez direla jasagarriak, kostu ekonomiko, sozial eta ekologiko handia dutelako.

<b>150</b>		<b>GOBERNUA ETA GIZARTE ZIBILA</b>	
<b>151</b>		<b>Gobernua eta gizarte zibila, orokorra</b>	<b>Adi, erabili 51010 kodea aurrekontu-laguntza orokorrerako.</b>
	<b>15110</b>	Sektore publikoaren administrazio- eta kudeaketa-politika	Sektore publikoa kudeatzeko sistemak eta haien gaitasunak indartzeko funtsezko erakundeak sortzen laguntzea. Horren barruan sartzen dira politika makroekonomikoen kudeaketa eta koordinazioa, plangintza eta erreforma, giza baliabideen kudeaketa, antolaketaren garapena, zerbitzu zibilaren erreforma, gobernu elektronikoa, plangintza, gainbegiraketa eta ebaluazioa, laguntza koordinatzen parte hartzen duten ministerioei laguntzea, eta beste ministerio eta gobernu sail batzuk, sektorea zehaztu ezin denean. (Erabili sektoreko ministerioetan sistemak eta gaitasunak garatzeari dagozkion sektoreko berariazko kodeak)
	<b>15111</b>	Sektore publikoko kudeaketa finantzarioa	Finantza- eta gerentzia-kontabilitatea indartzea; gastu publikoa kudeatzea; finantza-kudeaketako sistemak hobetzea; zerga-sarrerak kalkulatzeko prozedurak; aurrekontuak egitea; tokian tokiko auditoretza; xahutzearen, iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako neurriak, zor publikoa. (Zerga-politikarako eta zerga-administrazioarako laguntzarako, erabili 15114 kodea) (Aduanetarako, erabili 33120 kodea).
	<b>15112</b>	Deszentralizazioa eta eskualdeko eta tokiko gobernuari laguntzea	Deszentralizazio-prozesuak (dimentsio politikoa, administratiboa eta fiskala barne); gobernuen arteko harremanak eta federalismoa; eskualdeetako eta tokiko gobernuen sailak, eskualdeetako eta tokiko agintariak eta haien elkarte nazionalak indartzea. (Erabili sektorearen eta zerbitzuen kudeaketa deszentralizatzeari dagozkion berariazko kode sektorialak.)
	<b>15113</b>	Instituzioen ustelkeriaren aurka borrokatzeko erakundeak	Ustelkeriaren, eroskeriaren, diru-zuriketaren eta delinkuentzia antolatuaren beste alderdi batzuen prebentzioarako eta horien aurkako borrokarako erakunde espezializatuak, instituzioak eta esparruak, legea aplikatzeko eskumenak dituztenak edo eskumenik ez dutenak; adibidez, ustelkeriaren aurkako batzordeak eta zaintza-organoak, ikerketa-zerbitzu bereziak, osotasunaren eta gainbegiraketaren etikaren arloko erakundeak eta ekimenak, GKE espezializatuak, gizarte zibila eta ustelkeriarekin zuzenean lotuta dauden herritar-erakundeak.
	<b>15114</b>	Zerga-politika eta zerga-administrazioari laguntzea	Etxeko baliabideak mobilizatzen laguntzea / zerga-politika, analisisa eta administrazioa, bai eta zergazkoak ez diren diru-sarrera publikoak ere, barne hartuta finantza-ministerioekin, programa edo programa-talde bat inplementatzeaz arduratzen diren ministerioekin, zerga-agintaritzekin edo tokian-tokiko, eskualdeko edo nazioko beste erakunde publiko batzuekin egindako lana. (Gizarte-segurantzarako eta gizarte-babeseko beste neurri batzuetarako, erabili 16010 kodea).
	<b>15125</b>	Kontratazio publikoa	Kontratazio publikoari laguntzea, lege-esparruak sortzea eta ebaluatzea barne; kontratazio publikoko politiketarako eta erreformetarako orientazio estrategikoa ezartzeko aholkularitza; kontratazio publikoko sistemak eta prozesuak diseinatzeko aholkularitza; kontratazio publikoko erakundeei laguntzea (kontratazio elektronikoa barne), bai eta kontratazio publikoko sistemak ebaluatzeko egiturei edo ekimenei ere; eta kontratazio publikoko erakundeen eta langileen gaitasun profesionala garatzea.



15130	Lege-garapena eta garapen judiziala	<p>Sektore judizialeko erakunde, sistema eta prozedura formal zein informalei laguntzea; Justizia eta Barne Arazoetako Ministerioei laguntzea; epaileak eta auzitegiak; zerbitzu juridikoak; abokatuen elkarteak, arlo juridikoko irakaskuntza eta prestakuntza; legea, ordena eta segurtasun publikoa mantentzea; mugen kudeaketa, legea aplikatzeko agentziak, polizia, espetxeak eta horien ikuskapena; herriaren defendatzaileak, gatazken konponketa alternatiboa, arbitrajea eta bitartekaritza, laguntza juridikoa, eta lege-laguntza; tradizioak, indigenen ohiturak eta lege-sistema formaletik kanpo geratzen diren ohitura paralegalak.</p> <p>Honako hauek hobetzen laguntzen duten neurriak: esparru juridikoak, konstituzioak, legeak eta lege- eta konstituzio-erregelamenduak (idatziak eta berrikusiak), erreforma juridikoa eta legearen sistema formalen eta informalen integrazioa.</p> <p>Legearen inguruko hezkuntza publikoa, eskubideei eta bidegabekeriaren aurkako errekursoei buruzko informazioa zabaltzea, sentsibilizazio-kanpainak.</p> <p>(Funtsean segurtasun-sistemaren erreforman laguntzea helburu duten jardueretarako, edo gatazka ostearekin eta bakea eraikitzekeo jarduerekin lotuta egiten diren jardueretarako, erabili 152xx kodeak).</p> <p>(Migrazioari dagokionez mugak kudeatzeko gaitasunen garapenerako, erabili 15190 kodea).</p>
15142	Politika makroekonomikoa	<p>Egonkortasun makroekonomikoari laguntzea, zorraren jasagarritasuna eta egiturazko erreformak. Barnean hartzen du politika, lege eta erregulazioen formulazio estrategikoa egiteko laguntza teknikoa; sektore publikoaren garapena hobetzeko gaitasunak garatzea; politiketan oinarritutako finantzaketa. Zerga-politikarako eta etxeko diru-sarreraren mobilizaziorako, erabili 15111 eta 15114 kodeak.</p>
15150	Partaidetza demokratikoa eta gizarte zibila	<p>Demokrazia gauzatzen eta herritarrek hauteskunde-prozesuetatik harago parte hartzeko bideetan (15151) laguntzea; demokrazia zuzenaren tresnak, hala nola erreferendumak eta herritarren ekimenak; erakundeei laguntzea haien kideak ordezkatu eta defendatu ditzaten, zaintzea, gobernuek kontu eman dezaten bultzatzea eta herritarrei laguntzea eremu publikoan jarduten ikas dezaten; ikasketa-planak eta hezkuntza zibikoaren irakaskuntza hainbat mailatan. (Kode hau gobernantzarekin lotutako jardueretara mugatzen da. Gizarte zibilari emandako laguntza gobernantza-helbururik gabekoa denean, erabili beste kode egokiago batzuk).</p>
15151	Hauteskunde-prozesuak	<p>Hauteskunde-prozesuetan laguntzea eta gainbegiratzea; hautesleen hezkuntza zibikoa (Nazio Batuekin bakea eraikitzekeo gatazka osteko eragiketei lotuta daudenean, erabili 15230 kodea).</p>
15152	Legegintzaldiak eta alderdi politikoak	<p>Laguntza ematea, legegintzaldien edo parlamentuen funtsezko funtzioak indartzeko, hala nola biltzarrenak eta nazioz azpiko kontseiluenak (ordezkaritza, ikuskapena, legeria), legegintza-organoen gaitasuna hobetzeko, legegintza-batzordeak eta administrazio-prozedurak hobetzeko, informazioa kudeatzeko sistemetarako eta ikerketetarako, eta legegileentzako eta laguntzaileentzako prestakuntza-programak emateko. Alderdi politikoei laguntzea eta alderdien sistemak indartzea.</p>
15153	Hedabideak eta informazio-jario askea	<p>Gai publikoei buruzko informazio jario-aske eta zentsurarik gabea babesten duten jarduerak, eta argitalpena, ezagutza teknikoak eta papereko hedabideen eta hedabide elektronikoen zintotasuna areagotzen dituzten jarduerak; adibidez, kazetarien prestakuntza. (Hedabideak ekipamenduz hornitzeko eta kapital-laguntza emateko, erabili 22010-22040 kodeak).</p>

15160	Giza eskubideak	<p>Giza eskubideei buruzko laguntza ofizial espezializatu eta mekanismo unibertsal, erregional, nazional eta lokalak legezko eginkizunetan, eskubide zibil eta politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak sustatzeko eta babesteko, nazioarteko hitzarmenetan eta itunetan definitzen diren bezala, eta giza eskubideak eta legeria nazionaleko konpromisoak errespetatzea, txostenak aurkeztea eta jarraipena egitea, eta giza eskubideei buruz hitz egitea.</p> <p>Giza eskubideen defendatzaileak eta giza eskubideen GKEak; giza eskubideak, aktibismoa eta mobilizazioa sustatzea; sentsibilizazio publikoa eta giza eskubideen inguruko hezkuntza.</p> <p>Programazioko giza eskubideak talde jakin batzuei zuzenduta, hala nola haurrei, desgaitasunen bat duten pertsoneri, etorkinei, gutxiengo etniko, erlijioso, linguistiko eta sexualei, indigenei eta kasten diskriminazioa jasaten dutenei, gizakien salerosketaren biktimei eta torturaren biktimei.</p> <p>(Gatazken ostean bakea finkatzeko prozesuak direnean (Nazio Batuak), erabili 15230 kodea)</p> <p>(Emakumeenganako eta neskenganako indarkeriaren aurkako borrokarako, erabili 15180 kodea)</p> <p>(Errefuxiatuentzako edo etorkinentzako giza eskubideen programetarako, baita salerosketaren biktima direnean ere, erabili 15190 kodea)</p> <p>(Laneko oinarrizko printzipio eta eskubideetarako, erabili 16021 kodea; hau da, haur-lana, gatibu-lanak, diskriminaziorik eza enpleguan eta lanbidean, elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiboa).</p>
15170	Emakumeen berdintasunaren aldeko erakundeak eta instituzioak	<p>Genero-berdintasunaren eta emakumeen ahalduentzaren alde lan egiten duten instituzioetarako eta erakundetarako (governukoak eta gobernuz kanpokoak) laguntza.</p>
15180	Emakumeenganako eta neskenganako indarkeriaren aurkako borroka	<p>Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta mota guztietako genero-indarkeria saihesteko eta ezabatzeko diseinatutako programei laguntzea. Horrek barnean hartzen ditu hainbat motatako indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa, hala nola bikotekidearen indarkeria (etxeko indarkeria), sexu-indarkeria, emakumeen sexu-organoen ablazioa/mutilazioa, neskatoen ezkontza, behartutako ezkontza eta ezkontza goiztiarra, azidoa botatzea, ohorezko hilketak, eta emakumeen eta neskatoen salerosketa.</p> <p>Prebentzio-jardueratzat hartzen dira honako hauek: emakumeak eta neskatoak ahalduentzako ahaleginak; jarrerak, arauak eta portaerak aldatzea; lege-erreformak onartzea eta aldarrikatzea; eta emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeriari amaiera emateko legeen eta politiken aplikazioa indartzea, besteak beste erakundeen gaitasuna sendotuz.</p> <p>Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeriari edo generoan oinarritutako indarkeriari aurre egiteko esku-hartzeen artean honako hauek egon daitezke: zerbitzuak eskuratzeko aukera zabaltzea, laguntza juridikoa, aholkularitza psikosoziala eta osasun-arreta barne; langileak trebatzea bizirik atera diren emakumeen eta neskatoen beharrei modu eraginkorragoan erantzun diezaieten; eta tratu txarrak ematen dituztenak ikertu, prozesatu eta zigortuko dituztela ziurtatzea.</p>

	<p><b>15190</b></p>	<p>Migrazioa eta mugikortasuna modu ordenatu, seguru, erregular eta arduratsuan egin daitezzen laguntzea</p>	<p>Garapen-bidean dauden herrialdeei laguntzea, pertsonen migrazio eta mugikortasun ordenatua, segurua, erregularra eta arduratsua errazteko. Horren barruan sartzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaitasunak garatzea migrazio- eta mugikortasun-politikan, azterketan, plangintzan eta kudeaketan. Barnean hartzen ditu migrazio segurua eta erregularra errazteko eta migrazio irregularrari aurre egiteko laguntza, diasporarekiko konpromisoa, eta diru-bidalketek garapen-bidean dauden herrialdeetako garapen-proiektuetan duten eragina hobetzen duten programak.</li> <li>• Garapen-bidean dauden herrialdeetan langile migratzaileak biltzeko sistemak hobetzeko neurriak.</li> <li>• Estrategiarako eta politiken garapenerako gaitasunak garatzea, bai eta garapen legal eta judizialerako gaitasunak ere (mugen kudeaketa barne) garapen-bidean dauden herrialdeetan. Horren barruan sartzen da migrazio-prozesuan kalteberatasunei aurre egiteko eta horiek murrizteko laguntza, bai eta migratzaileen trafikoaren aurrean nazioz gaindiko erantzuna indartzeko eta gizakien salerosketari aurrea hartzeko eta aurre egiteko laguntza ere.</li> <li>• Nazioarteko babesa eta asilo-eskubidea bermatzeko estrategia eraginkorrak bultzatzea.</li> <li>• Justizia baliatzeko eskubidea eta lekualdatutako pertsonen laguntza bermatzeko estrategia eraginkorrak bultzatzea.</li> <li>• Migratzaileei laguntzea, jatorrizko herrialdera segurtasunez, duintasunez, informatuta eta beren borondatez itzul daitezzen (garatzen ari den beste herrialde batetik itzultzeko bakarrik; itzulera behartua denean, laguntza GLOtik kanpo dago).</li> <li>• Migratzaileei laguntzea, jatorrizko herrialdean modu jasangarrian integra daitezzen (abiatu aurretik herrialde emailetan emandako laguntzarako, borondatezko itzuleren testuinguruan, erabili 93010 kodea).</li> </ul> <p><i>Hornitzaileen interesak ase nahi dituzten jarduerak GLOtik kanpo daude.</i></p> <p><i>Lekualdatze behartuaren eta migrazio irregularraren funtsezko kausak lantzen dituzten jarduerak ez dira hemen sartu behar, baizik eta dagokien esku-hartze garrantzitsuko sektorean. Gainera, <b>erabili 15136 kodea herrialdeetako agintariei immigrazio-gaietan eta -zerbitzuetan laguntzeko (aukerakoa)</b>, 24050 kodea bidalketen kostuak murrizteko programetarako, 72010 kodea errefuxiatuei eta barnean desplazatuta dauden pertsonen emandako laguntza humanitariorako, hala nola larrialdiko eta babes humanitarioko zerbitzuak emateko. Erabili 93010 kodea, gastua errefuxiatuei herrialde emailean behin-behineko mantenua emateko denean, baita borondatez itzultzeko eta berriz integratzeko denean ere, laguntza herrialde emailean ematen bada bertatik sorterrira itzultzeko (hau da, abiatu aurreko laguntza), edo beste herrialde garatu batean beren borondatez birfinkatzeko.</i></p>
--	---------------------	--	---

152		<b>Gatazken prebentzioa eta konponketa, bakea eta segurtasuna</b>	<i>OHARRA: ERANSKINEAN, GLOn sartzen denari (eta kanpoan geratzen denari) buruzko beste ohar batzuk daude, gatazken ostean bakea finkatzeko prozesuekin eta segurtasunarekin lotutako gastuei dagokienez.</i>
	15210	Segurtasun-sistemen kudeaketa eta erreforma	<p>Lankidetzaren teknika parlamentuen, ministerio publikoen, legea beteaz arduratzen diren zerbitzuen eta instantzia judizialen alde, segurtasun-sistemak aztertzen eta erreformatzen laguntzeko, gobernuaren eta gizarte zibilaren kontrol demokratikoa hobetze aldera.</p> <p>Gobernuaren aldeko lankidetzaren teknika, aurrekontu-esleipenaren, kudeaketaren, gardentasunaren eta segurtasun-gastuen –gastu militarren barne– auditoriaren gainbegiratze zibila eta kontrol demokratikoa indartzeko, gastu publikoen kudeaketa hobetzeko programa baten esparruan;</p> <p>Gizarte zibilaria laguntzea, segurtasunean dituen eskumenak indartzeko eta segurtasun-sistema arau demokratikoen eta erantzukizun, gardentasun eta gobernantza onaren printzipioen arabera administratuta egon dadin zaintzeko gaitasuna indartzeko.</p>
	15220	Bakea eraikitzea eta gatazka prebenitzea eta konpontzea	Bakearen eraikuntzarekin eta gatazken prebentzioarekin eta konponbidearekin lotutako jarduerak zibiletarako laguntza, barnean sartuta gaitasunak, gainbegiratzea, elkarrizketa eta informazio-trukea indartzeko.
	15230	Gatazken ostean bakea finkatzeko prozesuak (Nazio Batuak)	<p>Aldebiko parte-hartzea bakea mantentzeko eragiketetan, betiere eragiketa horiek Nazio Batuek (NBE) Segurtasun Kontseiluaren ebazpenen bitartez agindutakoak edo baimendutakoak badira, eta nazioarteko erakundeek gauzatzen badituzte, hala nola NBE, NATO, Europar Batasuna (segurtasunarekin lotutako eragiketak, Segurtasun eta Defentsa Politikaren esparruan), edo, bestela, garapen-bidean dauden herrialdeetako elkarteak.</p> <p>Bakea mantentzeko NBEren aurrekontuari (UNDPKO) zuzenean egindako ekarpenak aldebiko GLOatik kanpo daude, baina alde anitzeko GLOtatzat har daitezke partzialki (ikus 2. eranskina).</p> <p>CRS kode honetan GLOtatzat har daitezkeen jarduerak honako hauek soilik dira: giza eskubideak eta hauteskundeak behatzea, desmobilizatutako soldaduak gizarteratzeko laguntza, oinarriko azpiegitura nazionala berreskuratzea, administratzaile zibilak eta polizia-indarrak gainbegiratzea edo birziklatzea, segurtasun-sektorearen erreformak eta Zuzenbide Estatuarekin lotutako beste jarduerak batzuk, aduana eta mugetako kontroletarako prozeduren trbatzea, zerga-politikei edo makroekonomia egonkortzeko politikei buruzko aholkularitza edo prestakuntza, talde armatuak aberriratzeko eta desmobilizatzea eta haien armak suntsitzea, pertsonen kontrako minak kentzen laguntzea).</p> <p>Nazioarteko bake-eragiketarako indar-alderdiak ezin dira GLOtatzat hartu. GLOtatzat har daitezke bakea mantentzeko eragiketetan aldebiko parte-hartzea, betiere pertsonal militar edo zibilaren hornidurarekin edo finantzaketarekin lotura badu (esate baterako, polizia-agenteak). Kostua honela kalkulatu da: bake-eragiketa batean parte hartzea bideratu ez balira langileek eta ekipamenduek izango zuketuen kostuaren gaineko soberakina. Bakea mantentzeko eragiketetan parte hartzen duten kontingente militarren kostuak ez dira GLOtatzat hartzen.</p>
	15240	Arma arinen eta kalibre txikiko armen ugaritzea kontrolatzea.	Desmobilizatutako langile militarrek bizitza ekonomikoan eta zibilean birgizarteratzea; arma-fabrikak erabilera zibileko produktuen fabrika bihurtzea; arma arinen eta kalibre txikikoen ugaritzea kontrolatzeko, Saihesteko eta/edo murrizteko lankidetzaren teknika - Ikus Eranskina barne hartzen diren jardueren definizioarako. [NBEk bakea mantentzearekin (15230) edo haur soldaduekin(15261) lotuta ez dagoen beste bat].
	15250	Pertsonen kontrako minak kentzea	Garapenaren alde egiteko, mina leherkorak kentzea [bakea finkatzeari (15230) ez dagokiona].

	<b>15261</b>	Haur soldaduak: prebentzioa eta desmobilizazioa	Lankidetzaren teknika Gobernuen alde –eta gizarte zibileko erakundeei laguntzea– haurrak soldadu gisa kontratatzea eragozteko legeak ezar eta aplikatu daitezkeen laguntzeko; haur soldaduen desmobilizazioari, armagabetzeari, birgizarteratzeari eta aberriratzeari (DDR) laguntzea.
--	--------------	---	--



<b>160</b>		<b>BESTELAKO GIZARTE-ZERBITZU ETA - AZPIEGITURA BATZUK</b>	
	<b>16010</b>	Gizarte-babesa	Gizarte-babesa edo gizarte-segurantzako estrategiak, legeria eta administrazio sozialak; erakundeak eta aholkularitza indartzea; gizarte-segurantza eta bestelako gizarte-plan batzuk; adinekoentzako, umezurtzentzako, desgaituentzako, haurrentzako, haurtxo jaioberriak dituzten amentzako, pobrezian bizi direnentzako, lanik ez dutenentzako eta egoera ahulean dauden bestelako taldeentzako diru-prestazioak, pentsioak eta programa bereziak; egiturazko egokitzapenen dimentsio sozialak.
	<b>16020</b>	Enplegua sortzea	Enplegu-politika eta plangintza; erakundeak indartzea eta erakundeei aholkularitza ematea; enplegua eta diru-sarrerak sortzeko programak; egoera ahulean dauden taldeen premiei erantzuteko berariaz diseinatutako jarduerak sartzen dira.
	<b>16030</b>	Etxebizitza-politika eta kudeaketa	Etxebizitza politika, plangintza eta programak; ez dira sartzen kostu txikiko etxebizitzak eta txabolismoa desagerraraztea (16040)
	<b>16040</b>	Kostu txikiko etxebizitzak	Txabolismoa desagerraraztea sartzen da.
	<b>16050</b>	Sektore anitzeko laguntza, oinarrizko gizarte-zerbitzuetarako	Oinarrizko gizarte zerbitzuak honako hauek bildu behar dituzte: oinarrizko hezkuntza, oinarrizko osasungintza, oinarrizko nutrizioa, ugalketa-osasuna eta biztanleriarekin lotutako gaiak, edateko uraren oinarrizko hornidura eta oinarrizko saneamendua.
	<b>16061</b>	Kultura eta aisia	Liburutegiak eta museoak barne hartzen ditu.
	<b>16062</b>	Estatistikan trebatzea	Bai estatistikako institutu nazionaletan, bai edozein ministerio-sailetan.
	<b>16063</b>	Estupefazianteen kontrola	Aduanetako kontrolak eta kontrol nazionalak, poliziaren prestakuntza sartuta; hezkuntza-programak eta sentsibilizazio-kanpainak, droga-trafikoa eta barne-banaketa murrizteko. <sup>1</sup> 1. Narkotikoak kontrolatzeko gastuak GLOtzat hartuko dira, baldin eta garapen ekonomikoa eta ongizatea xede dituzten jarduerak badira, garapen alternatiboko eta laboreak ordeztzeko programak sartuta (ikus 31165 eta 43050). Herrialde emaileak droga-hornidurak hautemateko, laboreak suntsitzeko edo militarrek narkotikoen aurkako jardueretan trebatzeko edo finantzatzeko egindako jarduerak ezin dira sartu.
	<b>16064</b>	GIB/HIESaren ondorio sozialak arintzea	GIB/HIESaren ondorio sozialak tratatzeko programa bereziak, hala nola GIB/HIESarekin bizi diren pertsonentzako laguntza sozial, juridiko eta ekonomikoa, elikagaien segurtasuna eta enplegua sartuta; talde zaurgarriari eta HIESak umezurtz utzitako haurrei laguntzea; GIB/HIESa duten pertsonen giza eskubideak.
	<b>16070</b>	Lan-eskubideak	Lanaren nazioarteko arauak, lan-arloko legeak, laneko oinarrizko printzipio eta eskubideak (haurren lana, bortxazko lana, diskriminaziorik eza lantokian, elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiboa) sustatzea; lan informala formalizatzea, laneko segurtasuna eta osasuna.
	<b>16080</b>	Gizarte-elkarrizketa	Gaitasunak garatzea eta aholkularitza ematea gizarte-elkarrizketari laguntzeko; gizarte-elkarrizketarako erakunde, organo eta mekanismoei laguntzea; enplegu-emaileen eta langile erakundeen gaitasunak garatzea.

<b>210</b>		<b>GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA</b>	<i>Oharra: Garraiorako ekipamenduen fabrikazioa 32172 kodean sartu behar da.</i>
	<b>21010</b>	Garraio-politika eta kudeaketa-administratiboa	Garraio-politika, plangintza eta programak; Garraio Ministerioei laguntzea; erakundeak indartzea eta horiei aholkularitza ematea; zehaztu gabeko garraioa; errepideko, trenbideko, uretako eta/edo aireko garraioa konbinatzen duten jarduerak.
	<b>21020</b>	Errepideko garraioa	Bide-azpiegitura, errepideko ibilgailuak; bidaiarien errepideko garraioa, ibilgailu motordun partikularrak.
	<b>21030</b>	Trenbideko garraioa	Trenbide-azpiegitura, tren-ekipamendua, tren-makinak, bestelako material gurpilduna; tranbiak eta metro-sistemak sartzen dira.
	<b>21040</b>	Itsas garraioa eta ibaiko garraioa	Portuak eta kaiak; portuetako urruneko gidaritzarako sistemak, itsasontziak, txalupak, batelak; ibaiko garraioa eta bestelako barne-nabigazio mota batzuk, gabarrak eta barne-nabigaziorako itsasontziak.
	<b>21050</b>	Aireko garraioa	Aireportuak, aireportuetako urruneko gidaritzarako sistemak; hegazkinak, hegazkinak mantentzeko ekipamendua.
	<b>21061</b>	Biltegitratzea	Garraioarekin lotura duena eta ez duena.
	<b>21081</b>	Garraioaren eta biltegitratzearen arloko irakaskuntza eta prestakuntza	
<b>220</b>		<b>KOMUNIKAZIOAK</b>	
	<b>22010</b>	Komunikazio-politika eta kudeaketa administratiboa	Komunikazio-politika, plangintza eta programak; erakundeak indartzea eta horiei aholkularitza ematea; posta-zerbitzuen garapena sartzen da; zehaztu gabeko komunikazio-jarduerak.
	<b>22020</b>	Telekomunikazioak	Telefono-sareak, telekomunikazioetarako sateliteak, lurreko estazioak.
	<b>22030</b>	Irratia, telebista, prentsa	Irrati eta telebistako loturak, ekipamendua; egunkariak; inprenta eta edizioa.
	<b>22040</b>	Informazioaren eta komunikazioen teknologia (IKT)	Ekipamendu eta programa informatikoak; Internetarako sarbidea; informazioaren teknologiei buruzko prestakuntza. Zehaztu gabeko sektoreak



<b>230</b>		<b>ENERGIA SORTZEA, BANATZEA ETA ERAGINKORTASUNA</b>	
<b>231</b>		<b>ENERGIA SORTZEA, BANATZEA ETA ERAGINKORTASUNA, ORO HAR</b>	
	<b>23110</b>	Energia-politika eta kudeaketa administratiboa	Energia-politika, plangintza eta programak; Energia Ministerioei laguntzea; erakundeak indartzea eta horiei aholkularitza ematea; zehaztu gabeko energia sektoreko jarduerak.
	<b>23181</b>	Energia gaien inguruko hezkuntza eta prestakuntza	Beste inon sartzen ez diren prestakuntza-mailei dagokie.
	<b>23182</b>	Ikerketa energetikoa	Inbentarioak eta azterlanak sartzen dira.
	<b>23183</b>	Energia gordetzea eta eskariaren eraginkortasuna	Energiaren eskaria murrizten laguntzen duten proiektu guztiak, hala nola eraikuntza eta industria hobetzea, sare adimendunak, neurketa eta tarifak. Sukaldeko berogailu eraginkorrak eta biogas-proiektuak ere sartzen dira.
<b>232</b>		<b>ENERGIA SORTZEA, ITURRI BERRIZTAGARRIAK</b>	
	<b>23210</b>	Energia sortzea, iturri berriztagarriak - askotariko teknologiak	Soilik teknologia bati esleitu ezin zaizkion energia berriztagarria sortzeko programak (23220tik 23280ra bitarteko kodeak). Egurraren eta egur-ikatzaren ekoizpena Basogintzan sartu behar dira (31261).
	<b>23220</b>	Zentral hidroelektrikoak	Ibaietako gabarrek sortutako energia sartzen da.
	<b>23230</b>	Eguzki-energia	Zelula fotovoltaikoak, eguzki-energiaren aplikazio termikoak eta eguzki-berokuntza sartzen dira.
	<b>23240</b>	Energia eolikoa	Energia eolikoa, hidrodinamikarako eta elektrizitatea sortzeko
	<b>23250</b>	Itsas energia	Itsasoko energia termikoaren bihurketa eta marea eta olatuek sortutako energia sartzen dira.
	<b>23260</b>	Energia geotermikoa	Energia geotermikoa erabiltzea elektrizitatea sortzeko edo, zuzenean, bero moduan nekazaritzarako eta abarrerako.
	<b>23270</b>	Biomasako zentral energetikoak	Biomasak sortutako solido eta likidoak zuzeneko energia sortzeko erabiltzea. Hartzidura anaerobikoko biogasak (adibidez, zabortegiko gasak, araztegiko lohien tratamenduak, labore energetikoen hartzidura eta simaurra) eta prozesu termaletakoa (sintesi-gas ere esaten zaie); hondakinez elikatzen diren energia-zentralak (etxeko hondakinak, eta enpresa eta zerbitzu publikoetatik datozen eta etxeko zaborraren antzekoak diren hondakinak, desagerrarazteko berariaz diseinatutako instalazioetan jasotzen direnak likido sukoiak, gasak edo bero berreskuratuta). Ikus 23360 kodea hondakin ez-berriztagarrien zentral termoelektrokoetarako.
<b>233</b>		<b>ENERGIA SORTZEA, ITURRI EZ-BERRIZTAGARRIAK</b>	
	<b>23310</b>	Energia sortzea, iturri ez-berriztagarriak - zehaztu gabe	Zentral termikoak, baita bero-iturria zehaztu ezin denean ere; gasez edo ikatzez elikatutako zentralak.
	<b>23320</b>	Ikatzezko zentral termoelektrokoak	Zentral termiko elektrikoak, energia-iturritzat ikatza erabiltzen dutenak.

	<b>23330</b>	Petrolioizko zentral termoelektrikoak	Zentral termiko elektrikoak, energia-iturritzat gasolioa edo diesela erabiltzen dutenak.
	<b>23340</b>	Gas naturalezko zentral termoelektrikoak	Gas naturalez elikatzen diren zentral termiko elektrikoak.
	<b>23350</b>	Erregai fosilen zentral termoelektrikoak, karbonoa atzitu eta biltegitratzen dutenak (CCS)	Erregai fosilen zentral termoelektrikoak, karbono dioxido isuriak atzitzeko teknologiak erabiltzen dituztenak. Zentral termikoekin loturarik ez duten CCSak 41020 kodean sartu behar dira. CCS jarduerak ez dira GLOtzat hartzen.
	<b>23360</b>	Hondakin ez-berriztagarrien zentral termoelektrikoak	Energia-iturritzat industriako eta udaletako hondakin ez-berriztagarriak erabiltzen dituzten zentral termoelektrikoak
<b>234</b>		<b>ENERGIA ELEKTRIKO HIBRIDOKO ZENTRALAK</b>	
	<b>23410</b>	Zentral elektriko hibridoak	Energia-iturri berriztagarriak eta ez-berriztagarriak erabiltzen dituzten zentral elektrikoak
<b>235</b>		<b>ENERGIA ELEKTRIKO NUKLEARREKO ZENTRALAK</b>	
	<b>23510</b>	Zentral termiko nuklearrak	Segurtasun nuklearra sartzen da.
<b>236</b>	<b>0</b>	<b>BEROKUNTZA, HOZTE-SISTEMAK ETA ENERGIAREN BANAKETA</b>	
	<b>23610</b>	Soilik beroa sortzen duten instalazioak	Soilik beroa sortzeko diseinatutako zentralak
	<b>23620</b>	Beroaren eta hotzaren banaketa	Galdara zentralizatu bakar batean edo ur hotzeko galdara batean sortutako beroa banatzea, etxebizitzak eta hirugarren sektoreko lokalak girotzeko.
	<b>23630</b>	Energia elektrikoaren transmisioa eta banaketa	Elektrizitatea energia-iturritik azken kontsumitzailearengana banatzeko sarea; transmisio-lineak. Elektrizitatea sortzeko energiaren biltegitratzea ere sartzen da (esaterako, ponpatze-estazioak, bateriak), baita sarerako sarbidea zabaltzea ere, askotan landa-inguruneetan.
	<b>23640</b>	Gas-banaketa	Azken kontsumitzaileak erabiltzeko banatzea

**Oharra:** Energia sortzeko lehengaien erauzketa meatzaritza-sektorean sartu behar da. Energia sortzea (esate baterako, gasa likidotzea, petrolio-findegia) erauzketa-industrien sektorean sartu behar da. Energia sortzearekin loturarik ez duten CRSak biosferaren babesean sartu behar dira. CADen Jarraibideei jarraikiz, energia nuklearraren erabilera baketsua sustatzeko laguntzak GLEtatzat har daitezke. Energia nuklearreko erreaktoreak eraiki eta eraistea sartzen da, homidura elektriko zibilerako edo isotopo medikoen hornidurarako, elikagaiak irradiazeko eta industriako nahiz merkataritzako beste aplikazio batzuetarako. Ez dira sartzen arma nuklearrak eta teknologia nuklearraren aplikazio militarrik ikertzeko jarduerak. Hala ere, esan beharra dago, aldi berean, esportaziorako kredituei buruzko ELGaren Akordioan parte hartu zutenek debekatu egin dutela, 2009. urteaz geroztik, energia nuklearreko instalazio berriak eraikitzeke eta lehendik dauden zentralak modernizatzeko finantzaketa ematea laguntza publikoen bidez. Hori guztia Akordio sektorial Nuklearrean xedatuta dago (ikus Akordioa: II. eranskina / II. kapitulua / 7. paragrafoa).

<b>240</b>		<b>BANKU- ETA FINANTZA-ZERBITZUAK</b>	
	<b>24010</b>	Finantza-politika eta kudeaketa administratiboa	Finantza-sektorearen politika, plangintza eta programak; erakundeak indartzea eta horiei aholkularitza ematea; merkatuak eta finantza-sistemak.
	<b>24020</b>	Erakunde monetarioak	Banku zentralak.
	<b>24030</b>	Sektore formaleko finantza-bitartekariak	Sektore formaleko finantza-bitartekari guztiak; kreditu-lerroak; aseguruak, <i>leasinga</i> , arrisku-kapitala eta abar (sektore bakar batean aritzen direnean izan ezik).
	<b>24040</b>	Finantza-bitartekari erdiformalak, informalak	Mikrokredituak, aurrezki- eta kreditu-kooperatibak eta abar.
	<b>24050</b>	Bidalketak ahalbidetzea, sustatzea eta optimizatzea	Bidalketen transferentzia-kostuak murrizteko programak sartzen dira.
	<b>24081</b>	Bankuen eta finantza-zerbitzuen arloko irakaskuntza / prestakuntza	
<b>250</b>		<b>ENPRESAK ETA BESTELAKO ZERBITZUAK</b>	
	<b>2501</b>	Politika eta enpresa-administrazioa	Erakundeak sortzen laguntzea, sektore publikoaren kudeaketako sistemak eta gaitasunak indartzeko. Hor sartzen dira, oro har, politika publikoen kudeaketa, koordinazioa, plangintza eta erreforma; giza baliabideen kudeaketa; antolamendu-garapena; funtzio publikoaren erreforma; gobernu elektronikoa; garapenaren plangintza, jarraipena eta ebaluazioa; laguntzaren koordinazioan parte hartzen duten ministerioei laguntzea; beste ministerio eta gobernu-sail batzuk, sektorea zehaztu ezin denean.  (Erabili berariazko kode sektorialak ministerio sektorialetan sistemak eta gaitasunak garatzeko. Politika makroekonomikoetarako, erabili 15142 kodea. Kontratazio publikorako, erabili 15125 kodea.)
	<b>25020</b>	Pribatizazioak	Sektorea zehazterik ez dagoenean. Enpresa publikoak berregituratzeko programak edo monopolioak ezabatzeo programak sartzen dira; plangintza, programazioa, aholkularitza.
	<b>25030</b>	Enpresa-garapenerako zerbitzuak	Enpresa-garapenerako zerbitzuen prestazio publikoa eta pribatua, hala nola inkubagailuak, negozio-estrategiak, merkataritza-loturen programak eta bitartekaritza-zerbitzuak. Hor sartzen da enpresak ordezkatzten dituzten erakunde pribatuei laguntzea, hala nola enpresa-elkarteak, merkataritza-ganberak, ekoizle-elkarteak, know-how hornitzaileak eta enpresa-garapenerako beste zerbitzu batzuk. Finantza-zerbitzuetarako, erabili CRS 24030 edo 24040 kodeak. ETEen garapenerako eta industria-sektoreko enpresei laguntzeko, erabili 32130etik 32172ra bitarteko kodeak. Nekazaritza-sektoreko enpresei laguntzeko, erabili 31120 kodea.

	<b>25040</b>	Enpresa-jokabide arduratsua	Politiken erreformak egiten laguntzea, enpresen jokabide arduratsuen (EJA) printzipioak eta estandarrak ezartzen eta betetzen laguntzea, eta enpresei merkataritza-jardunbide arduratsuak egiten laguntzea. Hor sartzen dira alderdi interesdunen eskubideak eta ingurumena babesteko lege- eta arau-esparru bat ezartzea eta aplikatzea, enplegatu onenak sarituz; EJAren adibideak jartzea gobernuaren jarduera ekonomikoetan, hala nola estatuko enpresen eragiketetan edo kontratazio publikoan; ELGAren Zuzentarauak ezartzen laguntzea enpresa multinazionalentzat, horien artean dibulgazioa, giza eskubideak, lan- eta industria-harremanak, ingurumena, eroskeriaren aurkako borroka, kontsumitzaileen interesak, zientzia eta teknologia, lehia eta zergak.
--	--------------	-----------------------------	---

311		NEKAZARITZA	
	31110	Nekazaritza-politika eta kudeaketa administratiboa	Nekazaritza-politika, plangintza eta programak; Nekazaritza Ministerioei laguntzea; erakundeak indartzea eta horiei aholkularitza ematea; zehaztu gabeko nekazaritza jarduerak.
	31120	Nekazaritzaren garapena	Proiektu integratuak; nekazaritzako ustiatzearen garapena.
	31130	Erein daitezkeen lurak	Hor sartzen dira lurzorua degradazioaren kontrola; lurraren hobekuntza; urpean geratutako eremuak drainatzea; lurzorua gatzgabetzea; nekazaritza lurak aztertzea; lurak berreskuratzea; higaduraren aurkako borroka; basamortutzearen aurkako borroka.
	31140	Nekazaritzarako baliabide hidrikoak	Ureztatze-sistemak, urtegiak, egitura hidraulikoak, lurpeko ura nekazaritzarako ustiatzea.
	31150	Nekazaritzako intsumoak	Haziak, ongarriak, nekazaritzako ekipamenduak/makinak hornitzea.
	31161	Nekazaritzako elikagaien ekoizpena	Hor sartzen dira zerealak (garia, arropa, garagarra, artoa, zekalea, oia, artatikia, sorgoa); baratzezaintza; barazkiak; fruitak, baiak; urteko beste labore batzuk eta labore iraunkorrak. [Nekazaritza industrietarako 32161 kodea erabili].
	31162	Laborantza industrialak /esportatzeko laborantzak	Hor sartzen dira azukrea, kafea, kakaoa, tea, oleaginosoak, fruitu lehorrak, almendrak, zuntzak; tabakoa; kautxua. [Nekazaritza industrietarako 32161 kodea erabili].
	31163	Abeltzaintza	Animalien hazkuntza; pentsuarentzako laguntza.
	31164	Nekazaritza-erreforma	Nekazaritza-sektorean doikuntza egitea barne hartzen du.
	31165	Nekazaritzaren garapen alternatiboa	Nekazaritzako ekoizpeneko eta merkaturatzeko beste aukera batzuen bidez legez kanpoko drogen laborantza murrizteko proiektua (ikus 43050 kodea, nekazaritza bestelako garapen alternatiboarena).
	31166	Nekazaritza hedatzea	Nekazaritzaren arloko prestakuntza ez-akademikoa.
	31181	Nekazaritzaren arloko irakaskuntza/prestakuntza	
	31182	Nekazaritzaren arloko ikerketa	Hor sartzen dira landare-espezieen hazkuntza, fisiologia, baliabide genetikoak, ekologia, taxonomia, gaixotasunen aurkako borroka, nekazaritzako bioteknologia; abeltzaintzako ikerketa (animalien osasuna, hazkuntza eta genetika, nutrizioa, fisiologia).
	31191	Nekazaritza-zerbitzuak	Merkatuen antolaketa eta politikak; garraioa eta biltegiatzea; erreserba estrategikoak ezartzea.
	31192	Landareak eta uzta ondokoa babestea, eta izurrien aurka borrokatzea	Hor sartzen dira laboreen babes integrala, labore biologikoak babesteko jarduerak, nekazaritzan erabiltzen diren produktu kimikoen hornidura eta kudeaketa, pestiziden hornidura, laboreak babesteko politika eta arauak.
	31193	Nekazaritzako finantza-zerbitzuak	Nekazaritzaren sektorerako finantza-bitartekariak, kreditu-planak barne; uzta-aseguruak.
	31194	Nekazaritzako kooperatibak	Nekazarien erakundeak barne hartzen ditu.
	31195	Albaitaritza-zerbitzuak	Animalien osasuna eta kudeaketa, baliabide genetikoak eta nutrizioak.

<b>312</b>		<b>BASOGINTZA</b>	
	<b>31210</b>	Baso-politika eta kudeaketa administratiboa	Basogintzako politika, plangintza eta programak; erakundeak indartzea eta horiei aholkularitza ematea; basogintzako azterlanak; zehaztu gabeko basogintzako eta nekazaritza eta basogintzako jarduerak.
	<b>31220</b>	Basoen garapena	Basoberritzea landa- eta industria-kontsumorako; ustiapena eta erabilera; higaduraren aurkako borroka; basamortutzearen aurkako borroka; baso-proiektu integratuak.
	<b>31261</b>	Egur-ikatz / egurra ekoiztea	Basoak garatzea, helburu nagusia egurra eta egur-ikatz ekoiztea izanik.
	<b>31281</b>	Basogintzaren arloko hezkuntza eta prestakuntza	
	<b>31282</b>	Basogintzaren arloko ikerketa	Hor sartzen dira espezieen ugalketa artifiziala eta hobekuntza, ekoizpen-metodoak, ongariak, mozketa eta zura biltzea.
	<b>31291</b>	Baso-zerbitzuak	
<b>313</b>		<b>ARRANTZA</b>	
	<b>31310</b>	Arrantza-politika eta kudeaketa administratiboa	Arrantza-politika, plangintza eta programak; erakundeak indartzea eta horiei aholkularitza ematea; alturako eta baxurako arrantza; itsas eta ibai-inguruneetako arrantzaren azterlanak eta prospekzioa; itsasontziak eta arrantzarako ekipamenduak; zehaztu gabeko arrantza-jarduerak.
	<b>31320</b>	Arrantzaren garapena	Arrantzategiak ustiatzea eta erabiltzea; arrantza-tokiak babestea; akuikultura; arrantza-proiektu integratuak.
	<b>31381</b>	Arrantzaren arloko hezkuntza eta prestakuntza	
	<b>31382</b>	Arrantzaren arloko ikerketa	Piszikultura esperimentalak; uretako ikerketa biologikoa.
	<b>31391</b>	Arrantza-zerbitzuak	Arrantza-portuak; arrantza-merkatuak; arraina hozkailuetan garraiatzea eta biltegiatzea.

321		INDUSTRIA	
	32110	Industria-politika eta kudeaketa administratiboa	Industria-politika, plangintza eta programak; erakundeak indartzea eta horiei aholkularitza ematea; zehaztu gabeko industria-jarduerak; beherago zehaztu gabeko ekoizpen-industriak.
	32120	Industriaren garapena	
	32130	ETEen garapena	Zuzenean laguntzea industriaren sektoreko mikroenpresen, enpresa txiki eta ertainen garapenari, kontabilitatea, auditorietza eta aholkularitza-zerbitzuak, transferentzia teknologikoa eta trebetasunak hobetzea sartuz. Merkataritza-politiketarako eta laguntza instituzionalerako, erabili 25010 kodea. Negozioetako erakunde bitartekarien bidezko enpresa-garapenerako zerbitzuetarako (hala nola merkataritza-elkarteak, merkataritza-ganberak, ekoizle-elkarteak, inkubagailuak, ezagutza-hornitzaileak eta enpresa-garapenerako beste zerbitzu batzuk), erabili CRSren 25030 kodea. Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren garapenerako, erabili 31120 kodea.
	32140	Artisau-industria	
	32161	Nekazaritza-industriak	Oinarrizko elikagai industriak, esnekiak, hiltegiak eta beharrezko ekipamendua, haragia eta arraina prozesatzeko eta kontserbatzeko industria, olioien eta koipeen industriak, azukre-lantegiak, edarien ekoizpena, tabakoa, pentsuen ekoizpena.
	32162	Baso-industriak	Zura, papera eta paper-orea ekoiztea.
	32163	Ehunak, larrua eta ordezkoak	Puntu-generoen lantegiak barne hartzen ditu.
	32164	Produktu kimikoak	Ekoizpen industrialeko eta ez-industrialeko instalazioak; pestiziden ekoizpena barne hartzen du.
	32165	Ongarriak ekoizteko instalazioak	
	32166	Zementua, karea, igeltsua	
	32167	Produktu energetikoen fabrikazioa	Hor sartzen dira gasa likidotzea; petrolio-findegia.
	32168	Ekoizpen farmazeutikoa	Ekipamendu / hornidura medikoak; medikamentuak, botikak, txertoak; higiene-produktuak.
	32169	Oinarrizko industria metalurgikoa	Siderurgia, egiturazko metalen ekoizpena.
	32170	Metal ez-ferrosoen industriak	
	32171	Eraikuntza mekanikoa eta elektrikoa	Makina elektrikoen eta ez-elktrikoen, motorren eta turbinen fabrikazioa.
	32172	Garraiorako materiala	Itsasontzien eta arrantza-ontzien eraikuntza; trenbideetarako materiala; autobusak eta ibilgailu partikularrak; eraikuntza aeronautikoa; nabigazio-sistemak eta urruneko gidaritzarako sistemak.
	32182	Ikerketa eta garapen teknologikoa	Hor sartzen dira industria-normalizazioa; kalitate-kontrola; metrologia, entseguak, egiaztapena, ziurtapena.

**Oharra:** Sektore horietan, ekoizpenerako edo fabrikaziorako laguntza baino ez da sartzen. Amaitutako produktuen hornidura dagokion sektorean sartu behar da.

<b>322</b>		<b>ERAUZKETA-INDUSTRIAK</b>	
	<b>32210</b>	Erauzketa-industrien politika eta kudeaketa administratiboa	Erauzketa-industrien politika, plangintza eta programak, meatzaritzaren arloko legeria, meatzeen katastroa, baliabide mineralen inbentarioa, informazio-sistemak, erakundeak indartzea eta horiei aholkularitza ematea; zehaztu gabeko baliabide mineralen ustiapena.
	<b>32220</b>	Mineralen prospekzioa eta miaketa	Geologia, geofisika, geokimika; ez dira sartzen hidrogeologia (14010) eta ingurumen-geologia (41010), mineralen erauzketa eta prozesamendua, azpiegitura, teknologia, ekonomia, segurtasuna eta ingurumenaren kudeaketa.
	<b>32261</b>	lkatza	Lignittoa eta zohikatza barne hartzen ditu.
	<b>32262</b>	Petrolioia eta gasa	Petrolioia, gas naturala, kondentsatuak, petrolio-gas likidotuak (PGL), gas natural likidoa (GNL), zulaketak eta ekoizpena barne.
	<b>32263</b>	Metal ferrosoak	Burdina eta aleazio ferrosozko metalak.
	<b>32264</b>	Metal ez-ferrosoak	Aluminioa, kobrea, beruna, nikela, eztainua, zinka.
	<b>32265</b>	Metal / mineral preziatuak	Urrea, zilarra, platinoa, diamanteak, harribitxiak.
	<b>32266</b>	Mineral industrialak	Barita, kareharria, feldespatoa, kaolina, harea, legarra, igeltsua, harri apaingarriak.
	<b>32267</b>	Ongarri mineralak	Fosfatoak, potasak.
	<b>32268</b>	Itsas hondoetako baliabide mineralak	Nodulu polimetalikoak, fosforitak, mineral-metaketa alubialak.
<b>323</b>		<b>ERAIKUNTZA</b>	
	<b>32310</b>	Eraikuntza-politika eta kudeaketa administratiboa	Eraikuntzaren sektoreko politika, plangintza; ez dira sartzen sektore espezifikoetako eraikuntza-jarduerak (adibidez, ospitaleen edo eskolen eraikuntza).





<b>331</b>		<b>MERKATARITZAREN ARLOKO POLITIKA ETA ERREGULAZIOA</b>	
	<b>33110</b>	Merkataritza-politika eta kudeaketa administratiboa	Merkataritza-politika eta plangintza; merkataritza-politikaz arduratzen diren ministerioei eta sailei laguntzea; merkataritzarekin lotutako legeria eta erregulazioaren erreformak; alde anitzeko merkataritza-akordioen analisi eta aplikazioa, hala nola merkataritzak dituen oztopo teknikoei eta neurri sanitario eta fitosanitarioei buruzkoak, eskualde-mailan izan ezik (ikus 33130); merkataritza garapen-estrategia nazionaletan sartzea (hala nola pobrezia-aren aurka borrokatzeko strategiaren dokumentuak); handizkako/txikizkako merkataritza; zehaztu gabeko merkataritza-jarduerak eta merkataritza sustatzeko jarduerak.
	<b>33120</b>	Merkataritza sustatzea	Nazioarteko inportazioko eta esportazioko prozedurak sinplifikatzea eta bateratzea (hala nola aduanetako balorazioa, lizentzia-prozedurak, garraioaren betebeharrak, ordainketak, aseguruak), aduana-sailei laguntzea, muga-zergen erreformak.
	<b>33130</b>	Eskualdeko merkataritza-akordioak	Eskualdeko merkataritza-akordioei (EMA) laguntzea (hala nola SADC, ASEAN, ALCA, ACP/EB); hor sartzen dira merkataritzak dituen oztopo teknikoak lantzea eta neurri sanitario eta fitosanitarioak eskualde-mailan; jatorrizko arauak egitea eta EMAetan tratamendu berezia eta berezitua txertatzea.
	<b>33140</b>	Alde anitzeko negoziazio komertzialak	Laguntzaren onuradunek alde anitzeko negoziazio komertzialetan benetan parte har dezaten laguntzea, eta hor sartzen dira negoziatzaileen prestakuntza, negoziazioen eraginaren balorazioa, MMEko eta merkataritzarekin zerikusia duten beste alde anitzeko erakundeetako kide egitea.
	<b>33150</b>	Merkataritzarekin lotutako doikuntzak	Gobernuaren aurrekontuari egindako ekarpenak, herrialde hartzaileetako merkataritzaren erreformak eta doikuntzak abiarazteko, eta beste herrialde batzuetako merkataritza-politikako neurriei erantzuteko; negozioren munduan izandako aldaketen ondorioz, ordainketa balantzan egon daitezkeen defizitak kudeatzen laguntzea.
	<b>33181</b>	Merkataritzaren arloko hezkuntza/prestakuntza	Aurreko kodeetan sartuta ez dauden merkataritzaren arloko giza baliabideen garapena. Merkataritzaren arloko unibertsitate-programak barne hartzen ditu.
<b>332</b>		<b>TURISMOA</b>	
	<b>33210</b>	Turismo-politika eta kudeaketa administratiboa	

<b>400</b>	<b>SEKTORE ANITZEKOAK</b>		
<b>410</b>		<b>Ingurumenaren babes orokorra</b>	Sektorea zehaztu gabe.
	<b>41010</b>	Ingurumen-politika eta kudeaketa administratiboa	Ingurumen-politika, legeak, erregelamenduak eta tresna ekonomikoak; erakundeak eta administrazioako jardunbideak; ingurumenaren eta lurzorua erabileraren plangintza; erabakiak hartzeko prozedurak; mintegiak, bilerak; kontserbazioko eta babeseko neurriak, aurrerago zehazten ez direnak.
	<b>41020</b>	Biosferaren babesa	Airearen kutsaduraren aurkako borroka, ozono-geruzaren babesa; itsas kutsaduraren aurkako borroka.
	<b>41030</b>	Biodibertsitatea	Erreserba naturalak eta inguruko eremuetako ekintzak barne hartzen ditu; espezie kalteberak edo galzorikoak eta haien habitata babesteko beste neurri batzuk (adibidez, hezeguneak babesteko).
	<b>41040</b>	Ondarearen babesa	Aparteko paisaia kulturaleri dagokionez; balio historiko, arkeologiko, estetiko, zientifiko edo hezigarria duten leku eta objektuak hartzen ditu barne.
	<b>41081</b>	Ingurumen-arloko hezkuntza/prestakuntza	
	<b>41082</b>	Ingurumen-arloko ikerketa	Datu-baseak, baliabide naturalen eta fisikoen inbentarioak eta zenbatespenak, ingurumen profilak eta inpaktuaren azterketak ezartzea barne hartzen du, sektorea zehaztu ezin denean.
<b>430</b>		<b>Sektore anitzeko beste batzuk</b>	
	<b>43010</b>	Sektore anitzeko laguntza	
	<b>43030</b>	Hiri-garapena eta -kudeaketa	Hiri-garapeneko proiektu integratuak; tokiko garapena eta hiri-kudeaketa; hiriko azpiegitura eta zerbitzuak; udal-finantzak; hiriko ingurumenaren kudeaketa; hiri-garapena eta -plangintza; hiriaren berrikuntza eta etxebizitzak; katastro-sistemak.
	<b>43040</b>	Landa-garapena	Landa-garapeneko proiektu integratuak; adibidez, eskualde-garapenaren plangintza; plangintzarako, koordinaziorako eta kudeaketarako gaitasun deszentralizatua eta sektore anitzekoa sustatzea; eskualdearen garapena eta eskualdeko neurriak abiaraztea (natura-erreserben kudeaketa barne hartuta); lurzorua kudeaketa; lurzorua erabileraren plangintza; lurralde-antolamendua; kokatzeko eta birkokatzeko jarduerak (errefuxiatuen eta barne-desplazatuaren birkokatzeta (72010) ez da sartzen); landa- eta hiri-eremuen integrazio funtzionala; informazio geografikoko sistemak.
	<b>43050</b>	Nekazaritzakoa ez den garapen alternatiboa	Drogak legez kanpo landatzeko eremuak murrizteko proiektuak, esate baterako, nekazaritzakoak ez diren diru-sarrerak izateko aukerak, azpiegitura materiala eta soziala baliatuz (ikus 31165 kodea, nekazaritzaren garapen alternatiboarena)

	<b>43060</b>	Hondamendi-arriskua murriztea	<p>Hondamendi-arriskua murrizteko jarduerak, sektorea ez bada zehazten. Hor sartzen dira arriskuaren ebaluazioak, egiturazko prebentzio-neurriak (esate baterako, uholdeen prebentziorako azpiegitura), prestatzeko neurriak (esate baterako, alerta goiztiarreko sistemak), prebentzio-neurriak, araudia (esate baterako, eraikuntza-kodeak, lurraren erabileraren plangintza) eta arriskuaren transferentzia-sistemak (esate baterako, aseguru-planak, arrisku-funtsak). Barne hartzen ditu, halaber, tokiko eta nazioko gaitasunak sortzea eta nazioko egitura eraginkor eta jasangarriak ezartzeko laguntza, betiere egitura horiek hondamendi-arriskua murrizteko gai badira.</p> <p>Lehenago 74010 kode humanitarioan sartu ditugun hondamendi-arriskua murrizteko jarduerak hemen sartzen dira.</p> <p>41050 "Uholdeen prebentzioaren kontrola" kodean kodetu ditugun jarduerak hemen sartzen dira.</p>
	<b>43071</b>	Etxeetako elikagaien segurtasuneko programak	<p>Elikagaien segurtasuneko politikak, programak eta jarduerak; erakundeen gaitasuna indartzea; elikagaien galera / xahutzea murrizteko politikak, programak; elikagaien segurtasunari buruzko informazio-sistemak, datu-bilketa, estatistikak, analisiak, tresnak metodoak; koordinatzeko eta gobernatzeko mekanismoak; Elikagaien segurtasuneko beste jarduerak batzuk, zehaztu gabekoak.</p>
	<b>43072</b>	Elikagaien segurtasuna eta kalitatea	<p>Epe laburreko edo luzeko etxeko elikadura-segurtasuneko programak eta jarduerak, familiek nutrizioaren ikuspegitik egokiak diren dietak eskuratzeko aukera handiagoa izan dezaten (ez da sartzen gizarte-ongizateko programa zabalagoen barruko eskudiru-transferentzia oro, baldin eta programa horiek ez badute elikadura-segurtasunari, elikagaiak eskuratzeari edo nutrizioari buruzko ikuspegi espezifikorik; kasu horretan, 16010 kodearen bidez jakinarazi behar da).</p>
	<b>43081</b>	Sektore anitzeko irakaskuntza/prestakuntza	<p>Bekak barne hartzen ditu.</p>
	<b>43082</b>	Erakunde zientifikoak eta ikerketakoak	<p>Sektorea zehazterik ez dagoenean.</p>

Oharra: Sektore bakoitzeko ingurumen-babesaren arloko berariazko jarduerak dagozkien sektoreetan sartu behar dira, eta "ingurumena" adierazleak adierazi behar dira. Sektore anitzeko kategorian sektore jakin bati esleitu ezin zaizkion ingurumen-jarduerak soilik sartzen dira.

<b>500</b>	<b>ONDASUNAK HORNITUZ LAGUNTZEA ETA PROGRAMETARAKO LAGUNTZA OROKORRA</b>		<i>Berariazko sektoreetako programetarako laguntza dagokion sektorean sartu behar da, sektoreko programaren adierazlea erabiliz, hala dagokionean.</i>
<b>510</b>		<b>Aurrekontu-laguntza orokorra</b>	<i>Aurrekontu-laguntza, ikuspegi sektorial gisa (SWAp), dagokion sektoreetan sartu behar da.</i>
	<b>51010</b>	Aurrekontu-laguntza orokorrarekin lotutako laguntza	Partida zehatzei esleitu gabeko aurrekontu-ekarpenak; erreforma makroekonomikoak aplikatzeko laguntza (egiturazko doikuntza- programak, pobrezia murrizteko estrategiak); programetarako laguntza orokorra (sektoreka esleitura ez dagoenean).
<b>520</b>		<b>Garapenerako elikagai- laguntza / Elikagaien segurtasunerako laguntza</b>	
	<b>52010</b>	Elikagai-laguntza	Programa nazionalen edo nazioartekoen babesean gizakiak elikatzeke produktuak hornitzea, garraio-kostuak barne; elikagaiak erosteko eskudirutan ordaintzea; proiektuetarako elikagai-laguntza eta jendaurreko salmentarako elikagai-laguntza, sektore onuraduna zehaztu ez denean. Larrialdiko elikagai- laguntza kanpo geratzen da.  Alde anitzekotzat hartu: i) EBren elikagai-laguntza, haren aurrekontuarekin finantzatu eta EBko herrialde kideen artean hainbanatzen dena; eta ii) Elikagaien Munduko Bankuari egindako ekarpen orokorrak.
<b>530</b>		<b>Bestelako laguntza ematea, ondasunak hornituz</b>	<i>Elikagaiak ez diren produktuekin laguntzea (sektore onuraduna zehazten ez denean)</i>
	<b>53030</b>	Inportazioari laguntzea (ekipamenduko ondasunak)	Ekipamenduko eta zerbitzuetako ondasunak; kreditu-lerroak.
	<b>53040</b>	Inportazioari laguntzea (produktuak)	Produktuak, ondasunak eta zerbitzu orokorrak, petrolio-inportazioak.

<b>600</b>	<b>ZORRAREKIN LOTUTAKO JARDUERAK</b>		
	<b>60010</b>	Zorrarekin lotutako jarduerak	Jarraian adierazitako kodeetan sartzen ez diren jarduerak. <i>Zorraren kudeaketari buruzko prestakuntza kode honetan sartzen zen lehen, baina orain CRS 15111 – Sektorre publikoko kudeaketa-finantzarioa sektorean zenbatu behar da.</i>
	<b>60020</b>	Zorra barkatzea	
	<b>60030</b>	Alde anitzeko zorra arintzea	Alde anitzeko finantza erakundeekin hartutako zorrari aurre egiteko dohaintzak edo maileguak; HIPC (zor handia duten herrialde txiroak) ekimenaren funts fiduziarioari egindako ekarpenak barne hartzen dira.
	<b>60040</b>	Berregituratzea eta birfinantzatzea	
	<b>60061</b>	Garapenagatiko zorra trukatzeara	Zorrak garapen helburuetarako esleitzea (adibidez, hezkuntzagatiko zorra, ingurumenagatiko zorra)
	<b>60062</b>	Bestelako zor-truke motak	Zorraren trukeak kanpoko eragile bati mesede egiten dionean, hau da, garapen helburuetarako berariaz bideratzen ez denean.
	<b>60063</b>	Zorra berreroatea	Zorra berreroatea, kitatzeko.

700	<b>LAGUNTZA HUMANITARIOA</b>		<i>Garapenerako Laguntza Ofiziala (GLO) definizioaren barruan, laguntza humanitarioa bizitzak salbatzeko, sufrimendua arintzeko eta, larrialdien ondorioen aurrean, giza duintasuna mantentzeko eta babesteko diseinatuta dago. Humanitario gisa sailkatua izateko, laguntzak iraunkorra izan behar du gizateriaren, inpartzialtasunaren, neutraltasunaren eta independentziaren printzipio humanitarioekin.</i>
720	<b>LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK</b>		Larrialdietarako laguntza mota guztiak, gizakiak sortutako hondamendietarako eta hondamendi naturaletarako.
	72010	Larrialdietarako laguntza eta zerbitzu materialak	<p>Etxebizitza, ura, saneamendua eta zerbitzu medikoak, botikak eta desnutrizioaren kudeaketa barne, baita larrialdietarako beste elikagai batzuk ere (txartelak eta dirua ematea barne) krisiak kaltetutako pertsonen alde, errefuxiatuak eta garapen bidean dauden herrialdeetan nahitaez lekualdatu behar izan dutenak barne hartuta.</p> <p>Barne hartzen ditu hondamendia gertatu eta berehala babes zibileko nazioarteko unitateek emandako edo koordinatutako laguntza (gauzazko laguntza, bereziki hornitutako ekipoen hedapena, logistika eta garraioa, edo eremura bidalitako adituen ebaluazioa eta koordinazioa).</p> <p>Barne hartzen ditu, halaber, krisiak kaltetutako pertsonen segurtasuna, ongizatea, duintasuna eta osotasuna sustatzeko eta babesteko neurriak, baita errefuxiatuak eta garapen bidean dauden herrialdeetan nahitaez lekualdatu behar izan dutenak ere.</p> <p>(Indarra erabiliz edo erakutsiz pertsonen edo propietateen segurtasuna babesteko diseinatutako jarduerak ezin dira GLO gisa hartu).</p>
	72011	Oinarrizko osasun zerbitzuak larrialdietan	Osasun zerbitzuak ematea (oinarrizko osasun zerbitzuak, osasun mentala, sexu eta ugalketa osasuna), nutrizio arloko esku hartze medikoa (elikadura terapeutikoa eta desnutrizioa tratatzeko esku hartze medikoak) eta kaltetutako onurarako botikak ematea. Elikadura osagarria ez da sartzen (72040).
	72012	Hezkuntza larrialdietan	Hezkuntza instalazioetarako laguntza (lehendik zeuden funtsezko azpiegitura eta eskola instalazioak zaharberritzea barne), irakaskuntza, trebakuntza eta ikaskuntza materialetarako (teknologia digitalak barne, dagokionaren arabera) eta kalitateko oinarrizko hezkuntza eta lehen hezkuntza (hezkuntza formala eta ez-formala barne), eta bigarren hezkuntza (lanbide-heziketa eta bigarren mailako hezkuntza teknikoak barne) berehala eskuratzeko aukera, larrialdiak kaltetutako haurren eta gazteen onerako, batez ere nesken eta emakumeen eta errefuxiatuen mesederako, bai eta gazteen eta helduen bizitzarako trebetasunak eta gazteentzako eta helduentzako lanbide heziketa ere.
	72040	Larrialdiko elikagai laguntza	<p>Elikagaien hornidura eta banaketa; eskudirua eta janariak erosteko txartelak; nutrizio arloko esku hartze ez medikoak, krisiak kaltetutako pertsonen alde, barne hartuta errefuxiatuak eta garapen bidean dauden herrialdeetan nahitaez lekualdatu behar izan dutenak. Gastu logistikoak barne.</p> <p>Kanpo geratzen dira elikagaien segurtasunerako eta elikagai laguntzarako programak, larrialdikoak/elikagai laguntzakoak ez direnak (52010) eta nutrizio medikoko (elikadura terapeutikoa) esku hartzeak (72010).</p>
	72050	Laguntza babesteko zerbitzuak koordinatzea	Laguntza humanitarioaren ebaluazioa eta entrega koordinatzeko neurriak, logistika sistemak eta garraio eta komunikazio sistemak barne; kaltetutako herrialdeetako gobernu nazionalen zuzeneko laguntza finantzarioa edo teknikoak ematea hondamendi egoera bat kudeatzeko; finantzaketarako eta eragiketa humanitarioetarako datu base enpirikoa eraikitze
			jarduerak, informazio hori partekatuz eta erantzun eraginkorragoa emateko estandarrak eta jarraibideak garatuz; laguntza humanitario eraginkorra emateko irtenbide berritzaileak

eta eskalagarriak identifikatzeko eta partekatzeko finantzaketa.

730		<b>Berreraikitze eta birgaitze laguntza</b>	<i>Horrek zerikusia du larrialdi egoera batean zehar eta haren ostean egiten diren jarduerekin. Azpiegitura edo gizarte zerbitzuen maila hobetzeko epe luzeagoko jarduerak sektoreko kode ekonomiko eta sozial garrantzitsuak erabiliz esleitu behar dira.</i>
	73010	Larrialdiaren ondoren berreraikitze eta birgaitze laguntza	Suspertze soziala eta ekonomikoa larrialdien ondoren, erresilientzia berreskuratzen eta sustatzen laguntzeko, eta biztanleei larrialdi egoera baten ondoren beren bizirauteko bitartekoak berrezartzen laguntzeko (adibidez, traumen gaineko aholkularitza eta tratamendua, enplegu programak). Barne hartzen ditu laguntza humanitarioa emateko behar den azpiegitura; lehendik dauden azpiegiturak eta funtsezko instalazioak zaharberritzea (adibidez, ura eta saneamendua, etxebizitza, laguntza medikoko zerbitzuak, hezkuntza); nekazaritzako oinarritzako eta abeltzaintzako intsumoak birgaitzea. Kanpo geratzen dira sektore garrantzitsuetan ematen den epe luzeko berreraikuntza ("hobeto berreraikitzea").
740		<b>Hondamendien prebentzioa</b>	Ikus 41050 eta 15220 kodeak, uholdeen eta gatazken prebentzioari buruzkoak.
	74020	Arrisku anitzen aurrean erantzuteko prestatzea	Nazioarteko, eskualdeko eta estatuko eragile humanitarioek hondamendiei aurre egiteko duten gaitasuna, eskumena eta ahalmena garatzea.  Estatuko eta tokiko gobernuaren, erakunde humanitario espezializatuen eta gizarte zibileko erakundeen gaitasun instituzionalei laguntzea gertakari arriskutsuen eta berehalako eta egungo larrialdi egoera potentzialen inpaktua aurreikusteko, erantzuteko eta onbideratzeko, mehatxu humanitarioak dakartzatenean eta erantzun humanitarioa behar dutenean. Barne hartzen ditu arriskuen azterketa eta ebaluazioa, arintzea, prestatuntza, larrialdietarako artikulua biltegiatzea, eta gaitasuna eta gaitasunen garapena krisialdietan bizitzak salbatzeko laguntzaren abiadura eta eraginkortasuna handitzeko.  Aurretik 74010 kodean sartutako jarduerak hona mugituko lirateke, lehen 74010 kode humanitarioan sartutako hondamendien arriskua murrizteko jarduerak izan ezik. Horiek Hondamendien arriskua murriztea 43060 kode berrian sartuko dira.

### Laguntza humanitarioko sektorea identifikatzea

Laguntza humanitarioa, oro har, larrialdietarako eta horien berehalako ondorioetarako, eta/edo horien prebentziorako ekarpenek finantzatuko dute, eta jarduera horien finantzaketa izango da gastua laguntza humanitariotzat hartzeko irizpide nagusia. Gastuaren izaera humanitarioa finantzaketaren arabera zehazterik ez badago, estatu kideek, datu estatistikoak egiteko, Nazio Batuen eta/edo Gurutze Gorriaren/Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduaren (ICRC/IFRC) txostenen erreferentzia izan dezakete. Txosten horiek larrialdi baten ostean argitaratu ohi dira, datozen behar humanitarioak identifikatzeko. NBERen edo ICRC/IFRCren txostena ez bada argitaratu larrialdiaren osteko sei hilabeteetan, horrek esan nahiko luke egoera ez dela larrialdizat hartzen, baina nazioarteko laguntza **beharrezkoa izan liteke datozen behar humanitarioak tratatzeko.**



<b>910</b>		<b>EMAILEEN ADMINISTRAZIO KOSTUAK</b>	
	<b>91010</b>	Administrazio kostuak (sektoreka esleitu ezin direnak)	

**CAD 920 sektorea - Gobernu Kanpoko Erakundeentzako Laguntza (GKE) kendu egin da. Mesedez, esleitu ekintza laguntza jasotzen duen GKEaren ildoekin bat datorren CRS sektoreari, edo, sektore jakin bat identifikatu ezin bada, markatu CRS 43010 sektorea - Sektore anitzeko laguntza.**

<b>930</b>		<b>ERREFUXIATUEI LAGUNTZA HERRIALDE EMAILEAN</b>	
	<b>93010</b>	Errefuxiatuei laguntzea herrialde emailean (sektoreka esleitu ezin direnak)	Garapen bidean dauden herrialdeetako asilo eskatzaileei eta errefuxiatuei oinarrizko laguntza ematen dieten herrialdeetan sortutako kostuak, 12 hilabete arte, kostuak bereizi ezin direnean.
	<b>93011</b>	Errefuxiatuei laguntzea herrialde emailean – janaria eta babeslekua	Garapen bidean dauden herrialdeetako asilo eskatzaileei eta errefuxiatuei oinarrizko laguntza ematen dieten herrialdeetan sortutako kostuak, 12 hilabete arte – janaria eta babeslekua. <ul style="list-style-type: none"> <li>- janaria eta aldi baterako funtsezko beste hornidura batzuk, hala nola arropa.</li> <li>- aldi baterako ostatua emateko zerbitzuak (harrera zentroak, edukiontziak, kanpalekuak). Eraikinei dagokienez, mantentze eta kontserbazio kostuak bakarrik aurkez daitezke GLO gisa. Aldi baterako ostatu instalazioak alokatzearen kostua aplikagarria da (eraikuntzaren kostu guztiak kanpo daude).</li> </ul>
	<b>93012</b>	Errefuxiatuei laguntzea herrialde emailean – gaikuntza	Garapen bidean dauden herrialdeetako asilo eskatzaileei eta errefuxiatuei oinarrizko laguntza ematen dieten herrialdeetan sortutako kostuak, 12 hilabete arte – gaikuntza. <ul style="list-style-type: none"> <li>- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza haurrentzat (horrek gastuak barne hartzen ditu, baina ez lanbide heziketa), aldi baterako sostenguarien zati gisa.</li> <li>- hizkuntzen irakaskuntza eta errefuxiatuentzako oinarrizko prestakuntza ad hoc, adibidez, bizitzako oinarrizko trebetasunak, gaitasunak, etab. (gaikuntza eta</li> </ul>
	<b>93013</b>	Errefuxiatuei laguntzea herrialde emailean – osasuna	Garapen bidean dauden herrialdeetako asilo eskatzaileei eta errefuxiatuei oinarrizko laguntza ematen dieten herrialdeetan sortutako kostuak, 12 hilabete arte: osasunaren oinarrizko arreta eta laguntza psikosoziala behar espezifikoak dituzten pertsonentzat, hala nola, inoren kargura ez dauden adingabeentzat, desgaitasunen bat dutenentzat, indarkeriatik eta
	<b>93014</b>	Errefuxiatuei laguntzea herrialde emailean – aldi baterako beste sostengua	Garapen bidean dauden herrialdeetako asilo eskatzaileei eta errefuxiatuei oinarrizko laguntza ematen dieten herrialdeetan sortutako kostuak, 12 hilabete arte: janaria eta babeslekua ez den aldi baterako sostengua (93011 kodea), gaikuntza (93012) eta osasuna (93013), adibidez, "poltsikoko dirua" asilo prozeduran bizirauteko eta laguntza gastuak ordaintzeko: dokumentuen itzulpena, aholkularitza legala eta administratiboa, interpretazio zerbitzuak.

	<b>93015</b>	Errefuxiatuei laguntzea herrialde emailean – borondatezko aberriratzea	Garapen bidean dauden herrialdeetako asilo eskatzaileei eta errefuxiatuei oinarrizko laguntza ematen dieten herrialdeetan sortutako kostuak, 12 hilabete arte: errefuxiatuak garapen bidean dagoen herrialde batera borondatez aberriratzea lehenengo herrialdeetara.
	<b>93016</b>	Errefuxiatuei laguntzea herrialde emailean - garraioa harrera herrialdera eta harrera herrialdearen berrantolaketa	Garapen bidean dauden herrialdeetako asilo eskatzaileei eta errefuxiatuei oinarrizko laguntza ematen dieten herrialdeetan sortutako kostuak, 12 hilabete arte: harrera herrialdera garraiatzea birkokatze programen kasuan, eta herrialde anfitrioiaren barruko garraioa.
	<b>93017</b>	Errefuxiatuei laguntzea herrialde emailean – erreskatea itsasoan	Garapen bidean dauden herrialdeetako asilo eskatzaileei eta errefuxiatuei oinarrizko laguntza ematen dieten herrialdeetan sortutako kostuak, 12 hilabete arte: errefuxiatuak itsasoan erreskatatzea operazioaren helburu nagusia denean. Operazioarekin lotutako kostu gehigarriak bakarrik kontatu daitezke.
	<b>93018</b>	Errefuxiatuei laguntzea herrialde emailean - administrazio kostuak	Garapen bidean dauden herrialdeetako asilo eskatzaileei eta errefuxiatuei oinarrizko laguntza ematen dieten herrialdeetan sortutako kostuak, 12 hilabete arte: administrazio kostuak. Errefuxiatuei aldi baterako sostengua zuzenean emateko gastu orokorrak baino ezin dira aukeratu. Horrek barne hartzen ditu errefuxiatuen zerbitzuei esleitutako langileen kostuak, baina ez ditu barne hartzen zerbitzu horiek zuzenean ematen parte hartzen ez duten langileen gastuak, hala nola administrazioa, giza balibideak, informazioaren teknologia.

<b>998</b>		<b>ESLEITU GABE/ZEHAZTU GABE</b>	
	<b>99810</b>	Zehaztu gabeko sektoreak	Onuradunaren garapen orokorrerako ekarpenak programetarako laguntzan sartu behar dira (51010).
	<b>99820</b>	Garapenarekin lotutako arazoei buruzko sentsibilizazioa (sektoreka esleitu ezin dena)	Garapenerako lankidetzan sentsibilizazio/interes handiago baten alde herrialde emailean egindako gastuak (liburuxkak, hitzaldiak, ikerketa proiektu bereziak, etab.).

# GEHIGARRIA: Gatazkak konpontzeari, bakea eraikitzeari eta segurtasunari lotutako gastuen GLO zenbaketa

## 1. Segurtasun gastuen kudeaketa.

Gobernuen aldeko lankidetzaren teknika, aurrekontu esleipenaren, kudeaketaren, gardentasunaren eta segurtasun gastuen –gastu militarren barne– ikuskapenaren gaineko gainbegiratze zibila eta kontrol demokratikoa indartzeko, gastu publikoen kudeaketa hobetzeko programa baten esparruan.

Adibidez, armadari ordainketa sistema berri bat ezartzen laguntzeko helburua duen lankidetzaren teknikoaren jarduerak ez da konputagarria. Aitzitik, gastu publikoaren kudeaketa hobetzeko programa baten esparruan, defentsarako aurrekontuaren kontrol demokratikoa indartzeko joera duten aurrekontu neurriak onesten laguntzeko jarduerak, konputagarria da.

## 2. Gizarte zibilak segurtasun sisteman duen egitekoa indartzea

Gizarte zibilari laguntzea, segurtasunari dagokionez dituen eskumenak indartzeko eta segurtasun sistema arau demokratikoen eta erantzukizun, gardentasun eta gobernantza onaren printzipioen arabera administratuta egon dadin zaintzeko duen gaitasuna indartzeko.

Horrek barne hartzen du GKEei eta gizarte zibileko beste erakunde batzuei, hedabideei, unibertsitatei eta ikerketa institutuei laguntzea.

Kanpoan geratzen dira militarren prestakuntza jarduerak. Kanpo geratzen da, halaber, Defentsa Ministerioari edo armadari emandako laguntza, administrazio publikoaren parte baitira, eta ez gizarte zibilarena.

## 3. Haur soldaduak.

Lankidetzaren teknika gobernuen alde -eta gizarte zibileko erakundeek laguntzea- haur soldadu gisa kontratatzea eragozteko legeak onetsi eta aplikatu daitezkeen laguntzeko.

Kanpo geratzen da haur soldaduak errekrutatu izan zitzaizketen taldeen aurkako operazio militarren kostua.

Haurrei eskaintzen zaizkien hezkuntza eta enplegu aukerak hobetzeko laguntza, soldadu gisa errekrutatze gogoa kentzeko helburua duena, eta agintariek eta gizarte zibilak haur soldadu bihurtu daitezkeen eragozteko duten gaitasuna (iritzia mobilizatzeko gaitasuna barne) indartzekoak bateragarriak dira.

Haur soldaduen desmobilizazioaren, armagabetzearen, birgizarteratzearen eta aberriatzearen aldeko ahaleginak ere hor daude.

Kanpo geratzen da militarren edo indar armatuek borrokatzen duten gaitasuna sendotzen laguntzen duen laguntza.

## 4. Segurtasun sistemen erreforma.

Lankidetzaren teknika parlamentuen, ministerio publikoen, legea betearazteaz arduratzen diren zerbitzuen eta instantzia judizialen alde, segurtasun sistemei laguntzeko, eta horiek aztertu eta erreformatzeko, gobernantza demokratikoa eta gizarte zibilaren kontrola hobetze aldera.

GLO gisa zenbatetsi daitezkeen laguntza eskumen/gaitasun ez-militarrek eta plangintza estrategikoko gaitasunak indartzeko jardueretarako besterik ez da, hau da, erantzukizun politikoa, instituzionala eta finantzarioa, gainbegiratze zibila eta gardentasuna sustatu ditzaketan jardueretarako. Defentsa Ministerioei ematen zaien mota horretako laguntza oro segurtasun sistemak erreformatzeko estrategia nazional baten esparruan inskribatu behar da, eta kanpoko laguntzaren koordinazioaren erantzukizun globala bere gain hartzen duen herrialde kideko ministerioaren onospena behar du.

## 5. Bakea eraikitzeke eta gatazkak saihesteko eta konpontzeko mekanismo zibilak.

Bakea eraikitzeke eta gatazkak saihesteko eta konpontzeko jarduera zibilei laguntzea, gaitasunak indartzea, jarraipena, elkarrizketa eta informazio trukea barne hartuz.

Kanpo geratzen dira estrategia militarretan parte hartzea eta defentsari dagokionez lankidetzan aritzea.

Laguntza jasotzen duten bakea eraikitzeke jarduera zibilek estrategia militarri buruzko informazioa zabaltzea barne hartzen badute, laguntza konputagarria da, baldin eta funtsen hartzaileak ez badira, ez militarrek, ez Defentsa Ministerioako funtzionarioak.

Kanpo geratzen dira zuzenean Defentsa Ministerioari edo armadari emandako laguntzak.

Hala ere, emandako laguntza zeharka erabil dezakete erakunde/agintari zibilek, Defentsa Ministerioak ez direnek, Defentsa Ministerioako langileek edo indar armatuek aurrez aipaturako jardueretan duten parte hartzea finantzatzeko.

## 6. Arma arinak eta kalibre txikikoak.

Arma arinak eta kalibre txikikoak ugaritzea kontrolatzeko, saihesteko eta/edo murrizteko lankidetzak teknikoak.

Gidalerro horren arabera, eremu horretan egindako jarduerak honela definitzen dira:

- armen ugaritzea kontrolatzeko eta murrizteko legeak, erregelamenduak eta administrazio prozedurak egitea.
- ekintza bideratzeaz, ikerketaz eta jarraipenaz arduratuko diren egitura instituzionalak ezartzea.
- iritzi publikoa arma arinei eta kalibre txikikoei buruz sentsibilizatzeko kanpainak.
- Eskualdeen lankidetzak sustatzea, bai eta arma arin zein kalibre txikikoei buruzko programetako informazioa trukitzea ere.
- armak bildu eta suntsitzea. (Kanpo geratzen da armak indarrez sartzeko eragiketen finantzaketa. Militarrek armak biltzeko eta suntsitzeko programetan parte hartzea ere kanpo geratzen da).

Kanpo geratzen da indar armatuen ahalmen militarra edo borrokarako ahalmena indartzen laguntzen duen laguntza oro.